

# anaitasuna

IRAILA ETA URRIA. 405.alea 60 PZTA.

PRENTSA  
EUSKARAZ

UDAKO IHARDUNALDIAK:  
FREINET MUGIMENDUAREN  
VII. BILTZARREA

MERCEDES SOSA:  
ABOTS BAT, OROIMEN BAT.

EUSKARARI BURUZKO  
IDEOLOGIAK.

PRENTSA

EUS-

KARA

SIN PRENSA  
EN EUSKARA  
NO ES POSIBLE  
EUSKAL HERRIA

Z

PRENTSA

EUS-

KARA

EUSKAL  
PRENTSA BARIK  
EZTA EUSKAL  
HERRIRIK

Z

PRENTSA

EUS-

KARA

NOUS VOULONS  
UNE PRESSE  
BASQUE  
EN PAYS BASQUE



Z

# Porque lo nuestro es Vizcaya


## Bizkaia geurea deláko

*Couñe en nosotros*

*Zenue urtea gurean*




**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO**  
**BILBO AURREZKI KUTXA**



# aurkibidea



3. Aurkibidea.
4. Artikuluburua.
5. Agiriak.
6. Bizkaiko Foru Diputazioan  
PSOE: Faxisten estalpea, ora pro nobis.
8. Alderdi Eguna 200.000.
9. Eusko Biltzarrea bildu zen.
10. Antzerkia Euskal Herrian; uda lorea ote?
14. Erahiltzeko baimena.
16. Hankaz gora.
18. Breizetik zehar.
20. Brasil, ezezagun hori.
22. Argentinako militarren eredia.
24. Kabylari buruz bi hitz.
25. Elkarrizketa biziak.
26. Udako ihardunaldiak.
28. Bizitza patentatua?
29. Eboluzionismoa eta kreazionismoa Estatu Batuetan.  
Komunean irakurtzeko gaiak.
30. Liburu. Lumadunen "rentree"-A. Jaietako askapenak.
32. Larramendiren hiztegiak zenbait bitxikeria.
34. Mercedes Sosa: abots bat, oroimen bat.  
Komunean irakurtzeko gaiak.
36. Euskarari buruzko ideologiak.
38. Esoterismoa (2): numerotan.
42. Gurutzegramak.



# anaitasuna

KOORDINAKETA  
J.R. Etxebarria

IDAZKUNTZA  
M.Aldana, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA  
J. Agirreazkuenaga, M. Aldana,  
A. Eguzkitza, J. R. Etxebarria,  
M. Izagirre, J. Llerandi  
T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta

## ARABA

K. Mendia

## BIZKAIA

J. Alvarez, J.A. Macias, X. Gomez,  
T. Trifol, J. Zertato

## GIPUZKOA

M.A. Landa, S. Oregi, A. Oiartzabal,  
I. Urtasun

## IPARRALDEA

M. Lanatua

## NAFARROA

B. Zabaleta, I. Zabaleta

## NAZIOARTEKOA

M. Aldana, M.J. Esteban

## IDAZLEAK

P. Agirrebaltzategi, I. Antiguiedad, M. Aldana, I. Alvarez, J.L. Alvarez, J. Artzelus, J.M. Artzubiaga, B. Barandiaran, J.R. Bilbao, A. Eguzkitza, E. Entzondo, J. Etxebarri, J.R. Etxebarria, M.J. Esteban, J. Iturbe, M. Izagirre, M. Kaltzakorta, X. Kintana, M.A. Landa, J. Llerandi, J. Mendizabal, J. Orbezua, S. Oregi, M. Otazurialde, M. Pagola, X. Portugal, K. Santisteban, J. Sarrionandia, T. Trifol, I. Urtasun, J.E. Urrutia.

## LANKIDEAK

K. Arko, J.J. Bakedano, X. Gomez, J. Idigoras, J.A. Macias, L. Trask, J. Zerrato.

## FOTOGRAFOAK

A. Alday, S. Barrena, Txaber, R. Zarrabitia, J. Zerrato.

## MAKETAPENA

Gorka Urrutikoetxea, R. Zumalabe.

## KOMIKIAK

X. Etxenike, Gentz, Monty, B. Zia.

## MARRAZKILARIAK

Ttua Taldea

## PUBLIZITATEA

ETA

## HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

## ANAITASUNA

Zabalbide 68-entlo. BILBO 6  
Tfnoa: (9-4) 4116630

## MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos

lege G.D.L. Bi-1753-1967

PRINTED IN THE BASQUE COUNTRY



# PRENTSA EUSKARAZ

Euskal Prentsa, hau da euskara hutsezko aldizkari idatziak (ANAITASUNA, ARGIA, HERRIA, JAKIN), gure ahuleziaz eta etorkizunaz erabat kezkatuak, euskarazko prentsaren etorkizunari begira, laguntza kanpaina bat eratzen ari gara Euskal Herri osoan zehar, bai Hego zein Iparraldean.

Hori dela eta, hurrengo Azaroak 14. eta 16an. "PRENTSA EUSKARAZ" lemapean, zenbait ekintza eta jokaera burutu dira, hauen artean aipatu data horietan egingen den kuestazioa gogoangarriena delarik.

Ez zaito bestalde inori ezkututzen komunikabideon desagertzeak euskal kulturari emango liokeen kolpe izugarri grabea, belaunaldi gazteenentzat guztiz kaltegarri litekeelarik.

Anaitasunari dagokionez, gure aldizkaria kaleratu gabe egon da azken bi hilabete hauetan. Aurretik ere ez ditu askotxotan epeak eta fetxak bete eta zorionean, hori guzioien arrazoia ez da artikulu edo idazle falta. Idazleak eta irakurleak ugari-tu badira ere, ekonomi-errealitateak, asmo on guztiak, (kalitatea, lankidetzeta, epeak, fotografia, gaiak, banaketa etab. etab.) hautsi eta menara ditzake.

Egoera ilun honetatik jalgitzeko, behin eta berriro, soluziobide bakarra dugu eskuetan: Herriari, Euskal Herriari dei egitea.

Kanpaina honen asmoak garbi daude. Alde batetik komunikabide hauen itzeleko galerei tope bat ipintzea. Bestetik, suskizio-kanpaina sendo bat prestatzea denon onerako.

Ikusten denez, eginahalak handiak dira, garainera lortzeko bezain handia, bostzondatea. Eta ez dugu dudarik, denon lankidetzarekin, euskarazko prentsaren egoera larria, bide onetik abiatuko dela.

Zure laguntzaren zai,

ANAITASUNA

**EUSKARAZKO IKASLIBURU BERRIAK**

Zenbait lanbide desberdinetako (Lizentziatuak, ingeniariak, etab) adiskidez osaturik dagoen Elhuyar Zientzi Taldea zientzi-techniketako hainbat gai desberdinetan lanean ari da azken urteotan. Horrela, hizkuntza bera landuagotzen saiatzen diren aldi berean, gure hizkuntzak gaur-biharretako gizarte geroz eta teknifikatu horretarako ezinbestekoa izango duen irakaskuntzarako oinegitura bibliografiko baten eraikuntzan dihardute, beste hainbatekin batean; guzti horrekin azken batez geure hizkuntzaren normalizazio-bideak sendotu eta aitzinatu nahiz.

Talde honek eskuartean darabiltzan beste hainbat lanen artean, garrantzitsuenetarikoa bat zera da, goian aipaturiko zientzi sail horietarako ikasliburuen prestakuntza. Liburuok Euskal Herriko Ikastetxe desberdinetan, osorik edo partez euskaraz dihardutenean edo hartarako asmotan direnetan, testu-gai moduan erabiliak izateko pentsatuak daude.

Halaz ere, eta modu honetako liburuek duten zenbait ezaugarri (oraingoz kopuru eskaseko tira-

dak) kontuan izanik eta bestalde talde horrek instituzio bidezko diru-langutzarik ez duenez, orain arte horrela argitaraturiko libururak zenbait Aurrezki kutxen laguntzaz bakarrik argitaratu ahal izan dira. Eta orduan ere apunte moduko formatoan atera behar izan dira.

Elhuyar taldeak 1980 urterako markatu zuen lan-egitarauaren baitan BUPeko hiru ikasturte-erako ikastextuen prestakuntza ezarri zen. Matematika, Fisika eta Kimika sailletarako. Lan hau, aldeztu aurretik planifikatu eta, taldeko zenbait lankideren eta beste zenbait irakasleren partaidetza lehiatsuaz, bere unean burutua izan zen; BUP 3rako Matematika liburua salbu, honi bestelako erritmo bat ezarri bait zitzaion, gainerako guztiak idatziak daude jadanik.

Hurrengo problema, eta ez txikia, liburu hauen argitalpanerako ezinbesteko diru-laguntzak aurkitzea izan da. Zorionez aurkitu izan dugu hartarako prest zegokeen erakundea: Eusko Ikaskuntza izan da erakunde hori. Bertako idazkari den Zumalabe jaunak agertu izan digunez, prest ezezik gogo biziz dago laguntza horren bidez libururak kaleratu

ahal izateko eta horrela 1980-81 ikasturte honetan bertan gure ikasle-irakasleen eskuetaratu ahal izateko.

Pauso berri bat dela deritzogu, oraingo hau, gure hizkuntzaren normalizazioa eta erabilera sendotu eta zabaltzeko; eta akuilagarri gerta daitekeela deritzogu, bide batez, sail honetan eta bestetan diharduten taldeek lanean gogor jarrai dezaten, horrela gure herriaren desioak bideratu ahal izateko. Egunoroko erabilera xumea dekretu txurigorrienak bezain beharrezkoa izango bait dugu, hemendik aurrera ere, hartara iristeko.

**DONOSTIAKO KILI-KOLO**

Donostiako Kili-Kolo elkarteak, dantza, mimo, umore, magia, eta abar luze batera dedikatzen den talde bat sortu du. Talde honen izena SERPIR da; eta nola ez inglaterrako hain famatua den idazletik hartu dute izena, hots SHAKESPEARE.

Sespir taldearen ekitaldiak "ehun urterainoko haurrentzat" dira. Norbaitek nahi badezake talde honen lanak dei dezala 943 27 31 07 telefonora; edo Donostiako Padre Larroka, 10 era jo dezala.

**BAT.**  
ANAITASUNAKo irakurle bakoitzak beste suskizio bat lortuko balu gure arazo guztiak konponduko liriateke berehala.

numano y . . . mo av  
koarengatik A. . . Spain  
dituela garbiki . . . aratzen  
eta " . . . sua bada  
"naz" . . . in b rri  
u, Ne . . . Dela o hit  
ez b . . . zere ber  
ak, r . . . zu ii  
aren . . . ez,  
Iri e  
kitu . . . a balitel  
ek ezker maila  
1, 29  
na batetan ( . . .  
autonomo bat Nafarro . . .  
lan. KAS-en aldeko be . . .  
ari ziren guztia' hild . . .  
rain

Harpidedun bakoitzak beste bat.

**BAT.**  
ANAITASUNAKo irakurle bakoitzak beste suskizio bat lortuko balu gure arazo guztiak konponduko liriateke berehala.

numano y . . . mo av  
koarengatik A. . . Spain  
dituela garbiki . . . aratzen  
eta " . . . sua bada  
"naz" . . . in b rri  
u, Ne . . . Dela o hit  
ez b . . . zere ber  
ak, r . . . zu ii  
aren . . . ez,  
Iri e  
kitu . . . a balitel  
ek ezker maila  
1, 29  
na batetan ( . . .  
autonomo bat Nafarro . . .  
lan. KAS-en aldeko be . . .  
ari ziren guztia' hild . . .  
rain

Harpidedun bakoitzak beste bat.

Ez ditzala inork jantziak urra, Bizkaiko Diputazioan, demokraziari laguntza gutti egiten dioten tipoek aterpea bilatu dute PSOEn barna eta hori dela eta, eredu batzu jarriko ditut esaten dudanaren froga emateko. Ehun urtez gain langileriaren alde onratuki eta argikiro burukatu duen partidu berbera, bere burua nola bilakatu egin duen kontura gaitezen bide batez.

## BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAN PSOE: FAXISTEN ESTALPEA, ORA PRO NOBIS.



*"Gure arbola santua, cabrón, gure arbola santua" oihukatu omen zion Makua Jaunak.*

Lehen eredu eskandalugarria Gernikan kokatzen dugu eta eguna, Diputazioaren Lehendakari zenaren Agosto Unzetaren hiletan.

Denok edo ia denok gogoratzen gara han bertan fatxek eta ultrek atera zituzten iskanbidez, "ejercito al poder, gobierno dimisión" eta derrigorrezko oihuak jaurtikiz. Gutti balitz, kantak eta kolpeak etorri ziren, Gobernadore Zibilaren automobilak harrapatu zituenak batez ere. Han zegoen jende-mendeak go-

bernadore bera garbitu nahi zuen. Han bertan bada, zoraldi eta "lilluramendu patriotiko" berean gure Dimas zegoen odolak kolpekatua, zainetan gorrotoa zuelarik, esteriko eta patriotikoa. Gehien eta gorago garraisi egiten zuena, bai jaunak, gehien eta zartako gogorrigo jotzen zuena Dimas zen, Bizkaiko diputazioaren atezainaren bat.

Egunak joanda, sasi demokraziak Euskal Herrira preautonomidun-erakundea ekarri zigun. Lehen Euskal Kontseilu Na-

gusiak gehiengo sozialista zeukan. Haien bulegoak Bizkaiko Diputazioan ezarri zituzten eta bertan ere, jakina, Dimas zegoen. Geure gizonak denbora zaharrak aldenitu zitzaizola gero eta hobe ikusi zuen. Rubial-en babesaren lortzeko ahalegin handiak egiten zituen hark bekoki guztiaz. Igogailuaren atea ireki, sorbaldatik eskua pasa, badakizue, "koipe-emaile" (1) on batek bere jabearen konfidantza irabazteko egiten ohi dioten gauza oro. Eta azkenez, konfi-



**Udal hauteskundeak iraganda, Makua Jauna, Diputatu Nagusitzat hautaturik izan zen.**

dantza hori izan zuen. PSOEkoa egin zen, txartela eta guztiarekin eta apurtxo bat lehenago UGTkoa, nola ez!

Bada, horixe duzue kondaketa eta istorio bat besterik ez litzateke geure gizona lanaz bakarrik aritu balu baina ez, hark bizitzan zehar betidaniko demokrata zela erakutsi nahi zuen eta langileen artean proselitismoa egitera dedikatu zuen bere burua eta zer nolako arrakastal

U.G.T.k gehiengoa zeukan hura sartu baino lehenago eta Dimas-i esker azken hauteskunde sindikaletan guttiengo lotsagarrira iragatera lortu dute UGTkoek. 75 botu besterik ez dute atera, ehuneko 0,35 beraz.

**Baina Makuari ez zitzaion berdin gertatu, minak zurbil, aserre bizian, ahotsa dar dar, paparretatik artxiberoa harrapatzen du eta tira-biraka, erdi nigarrez oihukatzen dio "Gure arbola santua, cabrón, gure arbola santua"**

Ez da harritzekoa, gainerako zentral sindikalak omenaldi bat egitea pentsatzen ari direla ezagutzea, "botu gehien" lortu duena baita.

Beste kondaketa bat, bestea bezain eskandalugarria, agian gehiago, Gernikan ere ditu oinarriak eta sorlekua. Delako hau trajikokomik alorrean sar genezake baina garrantzitsu eta mingotsa delako ez dut uste inork barre egingo duenik.

Oraingo gure pertsonaia historiaz lizentziatua da baina jakina, Franco-k eman omen zion lizentziatura eta "ministro de

los fasciculos" hura bezala, gure Francisco Sesmero (hala du izena) Ricardo de la Cierva-ren ikasle ona zen. Gure pertsonaia honek betidaniko amorrazioa izan dio euskara eta euskal kulturari, horregatik guttienez liburuzaina zen baina ez edonongoa, Bizkaiko Jaunerriaren liburuzain nagusia baitzen. Udal hauteskundeak iraganda, Makua Jauna, Diputatu Nagusitzat hautaturik izan zen. Egin zuen lehena, Gernikako juntetxera joatea izan zen eta bertan zegoen "gure liburuzaina" "gure artxibatzailea", espliazio guztiak emateko prest. Museoa erakutsi zien, liburutegia ere, non beraren hitzez"... tengo muy bien encuadernados ejemplares de Fuerza Nueva y toda clase de libros y revistas patrioticas" esan baitzuen.

Jo eta tira ibilita, (2) etxe-azpira iritsi ziren, sortoetara hain zuzen. Bertan zetza ten, hezetasunak eta sitsak (3) erdi-jana, agiri, paper eta liburu historiko eta baliotsu guztiak. Pentsa dezakegu zer nolako inpresio ona eman zion Diputadu nagusiari halako gauzak ikusteak. Makua Jauna senetik aterata (4) omén zegoen jadanik eta ibiliaren ibiliz hara non ikusten dute ikaztegi ilun bat atea hitxita. Irekita, abar ostoz zahar batzuek ikustarazten dituzte part botata. Galdetu zion Makua Jaunak beste bati ea zer arraio zen hura eta Galdonak, Juntetxeko zizeronea, Gernikako Arbolaren abarrak zi-

rela erantzun zion. "Zein arbola?" galdetu omen zion Makuak. Eta Galdonak berriz, "Zaharra, Diputadu Nagusia, zaharra..." Galdonentzat hitz horiek Francisco Sesmero faxistaren txarkeria guztien ordaina izan ziren.

40 urteetako bidegabekeria guztien ordaina kutatu zuen, momentu batetan.

Baina Makuari ez zitzaion berdin gertatu, minak zurbil, aserre bizian, ahotsa dar dar, paparretatik artxiberoa harrapatzen du eta tira-biraka, erdi nigarrez oihukatzen dio "Gure arbola santua, cabrón, gure arbola santua".

Eskerrak PNVko beste diputadu bat hor zegoela, Eizagirre, eta bereiztu zitu.

Ba horixe, Francisco Semero artxiberoa, eta igarri duzue artxibero ohia orain, Rubialengana arineketan (5) joan zen laguntza eske. PSOEn sartu zen. PSOEn eta UGTn eta jakina, PSOEkoek hura onartu etzekoen artean. PSOeri esker ez zuten botatu gure "langilea". Orain Bilbon segitzen du, Gran Viako jauregian apalak neurtzen eta Pablo Iglesias-i omenezkoak kantatzen.

Ederra du PSOEk beraz, hurbiltzen zitzaion ustelkeria guztia harrapatzen baitu.

Lorentzo Saez.

Idazkuntza

- 1) "Pelota". Flateur
- 2) Leku askotatik ibiltzea
- 3) Mite. Polilla
- 4) Sacar de quicio. Hors de soi-même
- 5) Azkar, fite
- 6) Estanterias. Rayons

Itziaren laugarren aldiz, Alderdi-Eguna ospatu zuen E.A.J.k. "El Alderdi-Eguna de los 200.000" deitu omen diote aurtegoari. Batzuk kopuru zehatza eta guzti eskainiz: 202.971 pertsona edo alderdikide. Dударik gabe euskal jendea batzeko ahalmen handien duen alderdia.

Han bertan esandakoak asko eta ugari dira, gehienak batetan edo bestetan jadanik agertuak, horregatik hain zuzen Arzallus-i "Goiz-Argikoak" galdetu zizkiotenak aukeratzen ditugu aipagarritzat. Hona hemen:

**Galdera:** Mitinetan edo eta hitzaldietan E.A.J. izan da jende gehiena batu duen alderdia. Hala ere, zenbait greba orokorretan minoria biolentaren baten atzean ibili da beti. Ulertzen al didazu?

**X.A.-** Minoria baten atzetik ibili izan garela?. Minorien atzetik?. Hori nola da?. Zer esan nahi dudazu?

**G.-** Greba bat antolatzen denean, minoria biolenta horrek beste guztiak behartzen dituela greba hori egitera, nahiz besteak grebaren kontra daudenak gehiengoa izan.

**X.A.-** Ba dakizu, minoria bada, indar bidez dendak hixten eta fabrikak uzten egin behar du. Zuk ez badaukazu beste indar bat horien kontra egiteko, horiek sartzen duten beldurrak besteak atera egiten ditu eta dendak hitxi edo hitxierazi egiten dute. Orduan, guttiengo horren lana indar bidez jarraituz gero, guk beste indar bat eratu eta antolatu beharko dugu. Minoritarioen indarren aurka joateko hain zuzen. Ez daukagu hori guziori oraindik prest. Baina behar bada, hori guziori egiteko prest gaude.

**G.-** Eta zure eritziz zer da hobe? Horiei erantzuteko beste indar handiago bat eratzea edo minorien menpean jarraitzea?

**X.A.-** Guk uste dugu ez dela behar indar bat. Hori abusua da. Baina beste biderik ez balego, bide horiek demokratikoak ez direla horiei guzioiei buruan sartzeko guk beste bide bat segitu beharko genuke. Indar bidez horien aurka egitea behar bada. Beste indar handi bat; normala litzateke besteak baino gehiago bagara eta benetan elkartu egiten bagara indar handiago bat sortuko da.

S. Oregi

# ALDERDI-EGUNA 200.000





# EUSKO BILTZARREA BILDU ZEN

Hilabetean zehar euzko legebiltzarrea bere jardunaldietan aritu da berriro. Bertan eztabaidaturiko gaiak honela labur daitezke: 1) "Bilbo Handia" den erakunde ezabatzeko lege proposamena. Delakoa onartu egin zen E.A., E.E. eta E.P.K.ren bozka laguntzaz. 2) Bigarren puntuá E.E.k aurkeztu zuen E.A.K.ren bozka laguntzaz. Delakoa H.B.ren parlamentaria den Iñaki Pikabearen egoerari zegokion. Izan ere, puntu honen bidez Euzko legiltzarrearen lehendakariari eskatzen zitzaion Estatuko kontituzio tribunalaren aurrean tarteka zedila, Pikabearen atxilotzea konstituzioaren kontrakoa dela defendatuz. Eskatze hau E.E.k, E.A.J.k eta P.S.E.k defendatu zuten gehiengoak onartuz.)

3) Hirugarrena OTAN-i buruz izan zen. Euskadiko Ezkerrak ezlegezko proposamena aurkeztu zuen, Espainiako Estatua erakunde horrenta sar ez dadineko helburuarekin alegia. Kasu guztietan eta aipatutako puntuari loturik erreferendum bat egin zedila eskatu zuten. Proposamen honek zazpi aldeko bozka bakarrik hartu zituen. E.PI. eta E.Ek. E.A.J.k eta A.P.k kontra P.S.E.k aldiz abstentziora jo zuen. Lertxundiren emendapen bati esker proposamen berri bat onartu egin zen OTANez PSE eta E.A.J.ren abstentzios eta A.P.ren kontrako bozkaz. Emendapena hala gelditu zen: "El Parlamento vasco, ante el eventual intento del Gobierno español de proceder al ingreso en la OTAN, a través de una decisión tomada por mayoría en las Cortes en el curso del año 1981, acuerda dirigirse al Presidente del Gobierno, a la Mesa del Congreso de los Diputados u del Senado, y a los grupos parlamentarios de ambas Cámaras manifestando lo siguiente.

1º Esta cuestión trascendental no debe plantearse en la actual legislatura. Debe congelarse hasta las elecciones generales de 1983, haciendo que el tema esté presente en las propuestas electorales y, por tanto, en la decisión del voto popular.

Ello permitiría discutir, en el marco constitucional y con la participación

correspondiente del Parlamento, la re-negociación de los acuerdos bilaterales con los USA, pero separando de ello el tema de la OTAN.

2º En cualquier caso, una cuestión de tanta trascendencia de ninguna manera podrá ser resuelta por una votación de mayoría en el Parlamento español. Cualquier decisión habrá de ser adoptada por medio de un referendun al efecto".

Geroztik hona, beste hainbeste legezko eta ezlegezko proposamenak etorri ziren.

Guzionen laburpen bat ematerakoan beste lege garrantzitsu batzu aurkezteko asmoa du euzko gobernua. Aipatzeotan, ondokoak aipatuko genituzke:

## 1.- Instituzio legegintza

- a) Erakundeen egoitzei dagozkienakb.
- b) Gobernuari dagokiona; c) Herrialde historikoei dagozkiona;
- d) Protokoloari eta euzko himnoari dagokiona; f) Autonomidun erakundeei dagozkienak.

## 2.- Sektorezko legegintza

### 2.1. Ekonomi eta Ondasun atala.

- a) Zabaltzearen gastuen programaketa buruzko legea eta 1980.ean euzko gobernuaren egiturari dagokona; b) 1981.rako presupostu legea; c) presu-

postu lege orokorra.

### 2.2. Lurralderako politikaren atala

- a) Ingurugiroari dagokion antolaketa eta beronen hesparrua b) Beroni buruzko planteiamenduen ideiak mugatu eta erabakitzea.

### 2.3. Lan atala a) "Euskadi"-ko kooperatiben araudia.

### 2.4. Garraio, komunikabide eta itsas arazoaren atala.

- a) Zamaldan kontratapenaren gunei buruzko legea.

### 2.5. a) EUSKARAZKO ALDIZKARIEN BABESTEKO LEGEA; b) Euskal zinematografiari babesteko legea; kultur eta arte mezenasgoaren pizte eta bestearen legea.

Konturatu garenez, guri zuzen zuzen dagokigun lege bat ba dago guzioien artean. Euskal aldizkariei dagokiena hain zuzen. Asmoa dela, lege guztiok 1980.ko azkenaldi honetarako onartuak izatea.

Eta Hala bedi legeegileek Gazteizeko Diputazioan biltzartuko diren bitartean, konpainia ona edukiko dute dudarik gabe.

Hara bestela argazkia! Kristo gurutzatua, Doña Isabela lehena eta Don Felipe V. Baitute konpainiatzat. Euzko legebiltzarrearen ukiezintasunaren eta neutraltasunaren ezaugarria, alegia.

E.H.



Kristo gurutzatua, Isabel I de Castilla eta Felipe V de Borbon buruak direlarik, Urriak 7 Gasteizen hasi zen biltzen euzko legebiltzarrea.

"Independiente"edo "amateur" taldeak alde batetara utzita, hoiena arlo guztiz ezberdina baita, Euskadin ba dirudi teatroat (teatro profesionalaz ari naiz, noski) udan bakarrik daukagula. Eta egon garen 80.eko uda hontan ez da salbuespenik izan. Hortaz, hainbeste konpainia ibili da gure herri eta hirietan zehar, era askotako lanak antzetzuz.

Panorama honen barruan aipamen berezia merezi du aurtengo Bilboko kasuak. Euskal "Broadway" azirudien Bizkaiko hiri-burua Abuztuaren bigarren hamabostaldian, eta Donostiako Zinemaldian egoten denaren antzeko giroa sortu zen: inoiz baino konpainia gehiago izan dira, inoiz baino kalitate handiagoko antzerkiekin, eta inoiz baino lokale gehiagotan. Gainera, gauero 1,30etan jendaurreko elkar-hizketak egoten ziren erdialdeko hotel luxotsu batean, zeinetara aktore-aktoriesak, eta batzutan egilea, agertzen ziren. Eragile nagusitzat "Astoria Katea" jo dezakegu, zeren honek bere zinetoki multzo bat antzoki bihurtu baitu (nahiz eta ez beti erresultadu oso onekin), eta obra hobereenak kontratatu.

Eragozpen bakarra prezioarena izan da, 600 pezeta gehiegi dela uste baitugu herri langilearentzat. Teatroat herrikoia izan dadila nahi badugu, zaila ikusten dut hori lortzea holako prezioekin. Kontutan hartzekoa da, bai, enpresak oso propaganda handia egin duela, bi hegazkinez eta guzti, jendea erakartzeko, eta hori ordaindu beharra dagoela, baina hala ere gehiegi iruditzen zaizkigu esandako 600 pezeta hoiek.

Arazo honi irtenbidea bilatzeko, ideia soil bat burutatzen zait, Kultura Ministeritzak subenzionatzeari hain zuzen. Baina egiaz, eta ez Madrilerako bakarrik, hona etorri diren askorekin gertatu denez. Ikusi ditudanen arteko dozena erdi bat baino gehiago Kultura Ministeritzaren Musika eta Teatro Zuzendaritza Nagusiarekin ("Dirección General de Música y Teatro del Ministerio de Cultura") "elkar lanean" eginak izan baitira —esku-programek diotenez behintzat—, baina hori sarreraren prezioetan ez dugu nabaritu. Madrilen adibidez, Ana Mariscalena ikusteko butakak 200 pta balio zuen, eta ume eta zaharrentzat 100. Hemen, Bilbon, osterat 500 denetzat. Hau al da berdintasuna eta teatroat laguntzea?

#### KOMENTARIO LABURRAK

Ondoren, ahalik eta laburkien, uda hontan ikusteko aukera izan dugunaren komentarioa egingo dut.

**Musikalen arloan**, et betiko errebistetatik aparte (Juanito Navarro, Tony Lebranc,

# ANTZERKIA EUSKAL HERRIAN, UDA LOREA OTE?

e.a.) bai etorri zaigula "bitxi zoragarri" bat: "Cantando los Cuarenta" zeukan izena. Vizcaino Casasena dela esaten badugu, zelakoa den suposatuko duzue, ezta? Ba bai, baina oraindik txarragoa. Izatez, libreto osoa panfleto fatxa bat da, eta 40 etako nostalgiaz baliatzen dira jendearen bihotzeta iristeko. "Ah, bai politikak urte haiek!". Politikak?, bai, baina denok dakigu nortzuentzat, eta ez dendetan herrenkada izugarriak jasan behar zituztenentzat, ez beren familiakoak espetxeetan zituztenentzat...

Eta hau nahikoa ez balitz izan, azken numeroan, "... banderita tu eres roja..." entzuten genuen bitartean, oso atsegin handiaz ikusi genuen nola eszenatokikoek beren eskuak jasotzen zituzten "Plaza de Oriente" egongo balira bezalaxe. Dena dela, eta egizale naizenez, esan beharra dago ere kanta gehienak ederrak zirela, eta Lilian de Celis (eskuaren "deitailea" kenduta) oso emakume dotorea irudituz zitaigula.

Musikala izanik, "Historia de un Caballo" ("Zaldi baten istoria") ez du zer ikusirik aurrekoarekin, beste muturrean dagoela esan dezakegu. Leon Tolstoi-ren ipuin bat da, eta gaztelerazko bertsoak, Enrique Llovert-ek egindakoa, jadanik 6 sari lortuak ditu. Aktore nagusiak Jose M<sup>a</sup> Rodero, Francisco Valladares eta M<sup>a</sup> José Alfonso dira, beste 16 edo 17 neska-mutilekin batera.

Denek elkarrekin lortzen duten espektakulua benetan ikusgarria da, "teatro osoa" zer den erakusten digu. Argumentoa sinplea da: zaldi istorioa, txikitatik zaharra izateagatik hiltzen duten arte. Patizancok (horrela deitzen baita zaldia) bere bizitza kontatzen digun bitartean, gizonaren zozotasun eta harrokeria nabarrian uzten ditu: "zaldi hau nirea da, hori nire zaldia da... Zer uste dute gizonak? Ez dut ezer bortzikiago gorrotatzen "nire" hitz hori baino".

Aipagarria da ere Frederik-en mimografi.

## Historia de un Caballo



EUSKAL HERRIA

Komedien arloan, era berean betikoak izan ditugu: Paco Martínez Soria, Quique Camoiras, Arturo Fernández, Jesús Guzman, Mary Paz Pondal (Gracita Moralesen itzuleraren berritasunarekin)... Zerbait berri ere, esaterako Prendes familia (Luis, Mari Carmen eta M<sup>a</sup> José) konpainia osatuz, eta antzerkialdi gustagarrian; eta gero arrakasta ulertezinak:

- "Violines y Trompetas" ("Txirribitak eta Tronpetak") Jesús Puente eta Juanjo Menendezekin bere hirugarren urtean. Nahiko komedia barregarria, baina ez du ezer berririk aportatzen, ez da ulertzen nola izaten duen hain arrakasta handia leku guztietan.

Egile beraren (Santiago Moncada) beste antzerki bat ere ikusi ahal izan dugu aurten, "Salvar a los Delfines" ("Izurdeak salbatzea"), eta guztiz aspergarria gertatu zitzaigun, nahiz eta Conchita Montes aktore-sa atseginak ahaletzen egon zituen odo pasagintzen.

- Alfoso Paso jasanezinaren "Enseñar a un Sinvergüenza" ("Lotsagabe bati irakastea") Jose Rubioren eta bere 7. urtean. Hobe ezer ez esatea. Batzutan pentsatzen hasten naiz jendea ez ote den leloa.

Oraindik urte gehiago darama Pedro Osinaga iruñearrak, 10 hain zuzen, "Se infiel y no mires con quien" ("Ezintzo izan, eta ez begira nogaz") egiten, Ana M<sup>a</sup> Vidalekin batera. Bodebil hutsa da, eta bere generoan ona dela aitortu behar dudan arren, hortik hamar urte irautera karteldegietan tarte handia dagoela pentsatzen dut. Salbuespenak salbu, niri bodebila beti "genero menor" delakoa irudituko zait eta.

Inolako sailkapenik egin gabe komentatuko ditut ene eritziz inportanteenak izan diren obrak "Zaldi baten Istoria" rekin batera.

Musikalen arloan, eta betiko errebistetatik aparte (Juanito Navarro, Tony Lebranc, e.a.) bai etorri zaigula "bitxi zoragarri" bat: "Cantando los Cuarenta" zeukan izena. Vizcaino Casasena dela esaten badugu, zelakoa den suposatuko duzue, ezta? Ba bai, baina oraindik txarragoa. Izatez, libreto osoa panfleto fatxa bat da, eta 40 etako nostalgiaz baliatzen dira jendearen bihotzetara iristeko. "Ah, bai politak urte haiek!"

### "EL TARTUFO"

"EL TARTUFO", Molièrena, Enrique Lloverte egokitua. Zuzendari eta antzesle nagusia Adolfo Marsillach delarik. Orain hamar urte debekatua izan zen. Bertan orduko eta gaurko pertsonaia identifikatzaileak, zeren tartufoak beti egon dira eta egongo baitira hipokrita, sasisaindua alegia; onarena egiten duena, astiro astiro, besteen gain, gora heltzeko.

Beharbada sinpleegia gertatzen da. Gauzak garbiegi esaten dira. Baina agian, hain zuzen ere, apropos egin dute jendeak, herriak, errazago ulertu dezan.

# EL TARTUFO

de  
**MOLIERE**  
Retrasladado por  
ENRIQUE LLOVET

del  
demócrata  
al  
impostor



### "PETRA REGALADA"

"PETRA REGALADA". Antonio Gala da egilea. Idazle honek egiten duen guzian bezala, poesiaz beterik dago textua, nahiz eta prosan izan. Bere ohitura denez, Galak zerbait personaia desmitifikatzen du, baina aldi hontan ez historikoak, oraingoak baizik. Lehenengo, eta oso modu argian, herrietako "kazikeak", eta gero —nire ustez hauxe da garrantzitsuen— "askatzailea" politikotxo gazte berri hori, inork ez daki nondik etorria, gu denok askatzera datorrena, eta gure laguntzarekin tiranoak botatzen dituean tiranoago bihurtzen dena. Hona hemen obraren mezua: "askatzailea barrutik irten behar da, geure artetik".

Inoiz ez da esaten non jazotzen den akzioa, baina zihur nago Andaluzian dela, zeren Andaluzian bakarrik eman ahal diren erlijio ohiturezko konnotazioak sumatzen dira eta.

Julia Gutierrez Cabak Pedra hobetuezina antzetzten du, eta besteak ez dira atzerago gelditzen.

José Sámamo  
presenta a

## LOLA HERRERA



**CINCO HORAS  
CON MARIO**

de  
MIGUEL DELIBES

Dirección:

Josefina Molina

*Delibes por primera vez al teatro!*

### "5 HORAS CON MARIO"

"5 HORAS CON MARIO" ("5 ordu mariorekin"). Miguel Delibes en elaberiaren adaptazioa. Lola Herrera aktorea eta Josefina Molina zuzendaria.

Feministatzaile jo dute obra hau zerbait lekutan eta hainbat alditan. Ez zaie arrazoirik falta horrela pentsatzen dutenei, baina ez da feminista guk normalki ulertzen dugun moduan. Textuak berak ez du zuzenean ezer errebindikatzeko, 60etako emakumearen bizimodua erakusten digu bakarrik. Norbaitek esan zuenez, ezer baino gehiago "hildako senar bati judizioa" da. Carmen Sotillok —Lola Herrera— bere senararen gorputzilaria gogoratzen dizkio, edo gainbotatzen hobe, erreakzio matxistak, beraren hutsegiteak. Makur txikiena ere agertzen da.

Ordu bat eta hiru ordu laurdetan jarduten du Lola Herrera bera bakarrik berbetan, eta ez da inoizko momentutan astuna bihurtzen.



JULIA GUTIERREZ CABA  
JUAN DIEGO AURORA REDONDO JAVIER LOROLA CARLOS GARUT GABRIEL JIMENEZ  
ANDREA D'ODORICO ISMAEL MERLO MANUEL COLLADO

JUANJO SEANE  
**CONCHA VELASCO**  
**JOSE SAZATORNIL "SAZA"**



**FILOMENA MATURANO**

MARGARITA GARCIA-ORTEGA  
 ANGEL F. MONTESINDS



Flowers

**"CONTRADANZA"**

"CONTRADANZA", Francisco Orsen lehen antzerki lana. "Lope de Vega" konpainiak antzetzua Ingalaterrako Isabel erreginaz hamaika leienda daude, beraren "birjintasuna" dela medio nagusiki. Hontan finkaturik, F. Orsek Isabel gizon zenaren hipotesisa ateratzen du. Hau dela eta antzerkian bi ikuspen desberdin egin daitezke, bata hipotesis historiko modura, eta bestea sexu askatasunaren defentsa bezala. Zeinek daukan inportantzia gehien, hori norberak esan behar du nonbait. Niretzat nahiko argi dago egilearen asmoa, Isabelen "anbiguedadeaz" baliaturik, maitasunari eta askatasunari ("elkarrekin harrapaladan daudela") kantu bat egitea izan zela.

Nolabait esan daiteke "Contradanza" homosexualitatearen aldeko panfleto bat dela, baijan hain arte et edertasun haundiaz egina, "Gora panfletoa!" ohiukatze go-goak sortzen zaizkizula.

Pellicenaren interpretaketa Isabelen papelean, bestetik, oso ona da, desmadrerik gabekoa. (Kontutan hartu behar dugu holako paperetan oso tontagarria dela "ameneramiento" an erotzea, hots "maritxu" arena egitea).

**"LA LOZANA ANDALUZA"**

"LA LOZANA ANDALUZA" ("Andaluziar neska mardula"). Rafael Albertiren ikuspena. Hemen aipatzen badut titulu hau, teoriar garrantzizkoa delako izan da, baina esatekotan ez du merezi inportanteen artean egoterik.

Dekoradoak hamabi milioi koskatu zaizkie, eta Queta Claver-en interpretazioa nahiko ona da. Hortik aparte ezer ez. Argumentuan ez dago interesik, guztiz astuna egiten da. M<sup>a</sup> José Goyanek ez ditu betetzen beharrezkoak diren baldintzak Andaluziako "lozana" izateko... Deskalabroa!

**"FILOMENA MATURANO"**

"FILOMENA MATURANO". Eduardo de Filippo italiarraren komedia bat da, oso arrunta eta sinplea. Izatez melodrama bat, baina batek ez daki zergatik, mundu guztia gustatzen zaio, agian oso gizaerazkoa, humanoa, delako, edo beharbada zuzendaria fotonobela ez bihurtzea lortu duelako... Malkoak, irribarreak eta algarak sortzen dira bi orduetan zehar.

Concha Velasco eta Sazatornil benetan ondo daude, Aitortu behar dut Saza ez zaidala inoiz batere gustatu, baina obra hontan bere papera "borobiltzen" du. Zuzendariaren eskua? Concharen papera orain Madrilen Maria Asquerinok egiten du.

"Teatroaldi" honi bukaera emateko "Akelarre" taldearen azken antzerkia ikusi

genuen, eta gero lruetara joan ginen "Flowers" aldarrikatuaz gozatzen.

Luis Iturriren azken "erditzea" z kritikari gehienek oso antzerki ona dela esan duten arren, ez zitzaigun hainbestetarako iruditu. Antzezleriak bai direla onak, baina obra bere osotasunean ez horrenbeste. Lau esketx ziren: bat Iturri berarena, oso dibertigarria, Bilboko eta Donostiako bi familieren arteko tirabirak (J.C. Egillor-en tankerakoak); beste bat Cervantesena, niretzako hobereana, zeinean pikareska tipikoa adierazten da; eta azken biak Lope de Vegarenak, nire eritziz astunegiak, nahiz eta interpretazio aldetik zailenak izan. Izenburua: "BANQUETES DE AMOR Y RISA".

**"FLOWERS"**

"FLOWERS" ("Loreak") teatro ikuskizuna Jean Geneten liburuan oinarririturik dago. Zaila suertatzen zait zer den edo nolakoa den esatea. Bakarrak argi, musika eta mimoaren bidez Lindsay Kemp-ek eta besteek mundu magiko batetara eramaten gaituela, zeinean heriotza eta maitasuna ikusten ditugu, baina beti edertasuna dela medio. Dena da errito baten modukoa. Egiaz zoragarria.

Beraz, Ministeritzak egiten ez badu, ea udalok, Iruñekoaren adibidea jarraikiz, hasten diren kulturaren alde lanean. Hala dadila.

Dena den, ez dut amaitu nahi zera esan gabe, Administrazioak ez daukala beti errua, edo erru bakarra behintzat, zeren Bilbon gutxienez, hain prezio garesti horrekaz teatroak bete egin dira, emenaldi asko, jenderik ezagatik, eta prezio askoz egokiagorakin.

I.A.


*Teatro*  
*Antzerki Eskola*  
 de Basauri



**"Comienza La farsa"**

Basauriko "Antzerki Eskola" oso lan txalagarria egiten du, baina Bilbon ez dute arrakastarik izan emanaldi bat baino suspentaitu beharrean egon dira.

# Herriarekin eta herriarentzat.



CAJA LABORAL. *Euskadiko*  
*Kutxa* 

Comunicado de Alejandro Rey Taboada

Muy Sr. mío:

En el comunicado que entrego la Dirección de esta Prisión y que en periódico público hay varias cosas que no concuerdan con los hechos.

Primero: Como es posible que Maximino Rey Taboada lo tuvieran URGENTEMENTE cuando el Señal de Verónica fue avisado a las 4 1/2 de la TARDE y como bien dice en su diario ingresó en el Hospital a las 9 45 horas de la madrugada.

Segundo: A las 4 1/2 de la tarde Alejandro Rey Taboada, avisó al Señal de Verónica asegurándole que un hermano se encontraba

fuera a lo cual el Señal de Verónica contestó que aquí el que quedaba era el y que se hacía lo que el quisiera y que si le pasaba algo él se lo buscaba luchando hasta la muerte con los demás. Fernandito, hacia un día que iba al estado de mi hermano y de lo cual luego recibí algunas noticias, como yo sé que (Que hubiera pasado si a mi hermano lo sacaban

a las 4 1/2 de la tarde cuando se le AVISO al Señal de Verónica). Pues si a mi hermano lo sacaban a las 12 de la noche como es que tarde 45 minutos en llegar cuando usualmente se tardan 15 minutos en este trayecto (y eso que voy en una ambulancia).


Hago constar en este escrito que después de haber estado en el Hospital de Basauri (Vizcaya) representado los señores Carabias así como constar que el Médico de la Prisión a bravura de su Dirección por causas no aclaradas;

Lo Ruego luego a bien publicar esta Nota en Verónica a su nombre que tiene mucho interés de lo que se le acusaba en Basauri en ninguna forma que lo acusen que que el Señal de Verónica lo representa en Basauri en Basauri que se hacían.

Alejandro Rey Taboada

ERAHILTZEKO  
BAIMENA

EUSKAL HERRIA



"HAN ASESINADO A MI HERMANO, lo han asesinado porque les dio la gana, para probar que ellos mandan".

Ez da azken albistea. Irakurria duzue seguraski nonbait, edozein egunkaritan. Halakoak maiz edo egunero gertatzen ohi dira Euskadin. Eta ez diegu kasu handirik egiten. Bortxaz aritzen diren albistei ez diegu kasurik egiten. Gainbegirada bat botatu arin, hildakoak kondatu eta aurrera. Egia esan, ez diegu jadanik ezer ezeri kasurik egiten. Ohiturik gaude.

"A MI HERMANO LO MATARON EL 25 DE JUNIO EN LA PRISION DE BASAURI"

Hori dioskunak hainbeste urte pasa da gartzelan. Ez dakigu seguru, sei edo zazpi, esan zigun. Lehedabiziko aldiz oilo bat ohosteagatik eman zioten hainbeste urte. Egia esateko ez zuen oiloa bakarrik ohostu, oiltogeko atea ere hautsi omen zuen. Hauzitegian mahaiburuari barre egin omen zion, iraindu ere, ba dirudi baietz. Bata bestearrekin zazpi urte irabazi zuen dohain dohainik. Ez zen egiatan urrezko arraultzen oiloa. "Claro que era cuando Franco". Geroztik ere gartzelak aski ongi ezagutzen du: "Por robar un coche te pueden echar hasta seis años"... "por matar depende de quien mate"... "Behin batetan Basauriko Don Andrés apaizari esan nion: Si Dios es todopoderoso porqué no hace una cuesta abajo que no tenga cuesta arriba? Zi-

gortu ninduten 40 egun zelula batetan. Apaiz haretaz, elizamaz eta Jainkoaz barre egin omen nuen. Nagusigoak nagusitasuna eta pribilegioa gordetzeko beldurra sartu behar dizu gorputz barruan... Orain Don Adresek lekutik aldatu da espiritualki. Progresistatzat jotzen du bere burua. Baina aldaketa hori azalezkoa besterik ez da izan. Presondegien araudiak berdin segitzen du, lehen bezain ustel".

... "Nire anaiaren kasua pixkat ezberdina duzu. Hura ero omen zegoen. Etxekoekin gorabehera asko eta handiak. Psikologikoki desorekatuta zegoen anaia. Medikua eta psikiatri osabidea behar zuen. Zampaketarik ez... Haren atxilotzearen gora-beherek barre mingotsa ematen dizu. Barakaldon atxilotu zuten, geltokian. Ba dakizu zer egin nahi zuten?... Trenaren burnibideak aldatu eta aldatzekotan aldatu nahi zituen baina zorionez ez zen ez-beharrik gertatu. Amaginarreba zetorrela trenean sartu baitzitzaion buruan. Geltokiko arduradunek harrapatu zuten. Zenbait lapurrez ere bota zioten poliziakoek gainera. Horietan guziorrekin eta trenaren atxakiarekin gartzelara eraman zuten. Ez zegoen ongi, ez. Depresio asko. Baina hori sendatzen da eta sendatzeko, medikuek gartzelatik ateratzeko baimena eskatu zuten. Hemen daukat hainbeste zertifikatu. Dena alferrik. Zamudiora eraman zuten bera hil baino astebete lehenago. Baina geroxeago beste juez (1) batek, Bilboko hirugarrenak Madrileko psikiatri-etxera eramateko agindua eman zuten eta bitartean Basaurira berriro ekarri zuten"...

Ekainaren hogeitabian, arratsaldeko lau t'erdia inguruan, Severinok etsiturik, gartzelatik lehenbaitlehen jalgitzeko asmoa zuela, Valium 10, Sinogal, Merilil eta garbikari bat irensten ditu denak batera. Inork ez daki nondik atera zuen hainbeste pastilla. Anaiak ikusiko zuen Severino patioan eroria. Medikua behar zuela baina zerbitzu-arduradunak ez du nahi medikurik. "Yo soy el que mando y tengo la sartén por el mango". Medikua deitu omen zuela esango zuen eta medikuak ez duela ezer, esan omen dio arduradunari.

"De todas formas si se pone peor me avisán" esango omen zion medikuak zerbitzu-arduradunari.

Gaizkiagotu egiten da Severino, eta gaizkiagotzea normaltzat hartu behar den ondorioa da.

Utz dezagun momentu bat historiaren haria. Medikua benetan gaixoa ikusi badu nola esan dezake "gaizkiagotzen bada abisatzeko"?

Zein medikuk egin dezake halako arinkeria bat? Toxikapenaren ezaugarriak diagnostikatzeko gaixoa gaizkiagotu behar al da?

Ez. —La absorción digestiva de los barbitúricos se lleva a cabo de manera rápida, de forma que alcanza los máximos niveles hemáticos en 1 ó 2 horas (Medicina 34. zk.)—.

Barbiturikozko toxikapena aurretik egon dela uste izaten denean, mediku batek erraz atera dezake ondorio argia. Izan ere, Neurologi sisteman sintomak agertzen dira: eragitea, dardarzioak,

takikardiak; farmako batzuk logabetasuna eragiten dute, beste batzuk aldiz lo sakona etab. Horiek guzioiek frogagarriak izaten dira. Beraz, medikuak ba zekiela egia balitz, bera litzateke Severinoren heriotzaren erantzuleetako bat. Baina ez da horrela. Gartzelaren arduradunak ez zuen medikuak abisatu.

Severinok pastillak hartu ondoren ez zuen medikuak berriro ikusi.

Sei ordu t'erdia egongo da mediku-laguntzarik gabe. Erdi moratirik dagoenean, ia pultsurik gabe, hilzorian, koma sakonean orduan egiten dituzte prestaketak ospitalera eramateko. 0,45tan Basauriko Udalaren ambulanzia batek eramaten du gorpuzta. Minutu batzutan gorpua izango zen.

Beste gainerako guztiak berez etorriko ziren. Medikua bakarrik dimisioa presentatuko zuen. Hauria bideratzen den artean arduradunak berdin segituko du, berak baitu "zartagina girtenetik".

Biharamunean Basauriko presondegian presoak gose greban hasi zirenean errepresioa eta zigorrarekin erantzun zieten.

Ez da gauza askorik, aldatu Francoren presondegietan. Haren izpiritua bizitzaren eta heriotzaren jabea da. Ezin ziteken inola ere zalantzan jarri erdarazko esaera: "Quien manda, mada". Delakoa garbiegi frogatu dute Basaurin.

E.H.

(1) Epaikaria. Juge d'instruction.



Basauriko gela bat. Denak ez dira berdin. Gehienak bestelakoak dira baina horiek ez dizkigute erakutsiko.

**MADRILEKO KONFERENTZIA**

Mendebaldeko Estatuak Madrileko konferentzia propaganda psikologizko harma bihurtu nahi dute, antza denez, "giza eskubide" delakoen aitzaki-maitzakiak erabiliz (Afganistan, Polonia, etab, kasu). Ez litzaiguke txarra zera gogoratzea, hots, Euskal Herriko 80 abokatuk dossier exhaustibo bat aurkeztu diote lehengo konferentziari, bertako komisaldiegietan gertatutako torturak, Amnesty International egitate hauen ziurtatzaile delarik, eta "inkontrolatu" famatuen ekintzak salatuz. Prestaeraza ere litzateke beste dossier bat, halakoek arestian uniformea erantzita ekiten zutela edo ultra — eskuindar banda harmadunak gobernuaren eta erregearen armadaren men-menean daudela frogatuz.

Ikusten denez, hauexek ditugu planteiamendu diferentek eta horrengatixek trataera ezberdina daukate delako konferentzian. Tratamendu ezberdin honen sostengua zera genuke, maila edo kategoría bereiziko giza eskubideak bide daudela, alegia. Eta kategoría horiei atxekiz, arazoei bestela erizten diete.



**EGOERA EKONOMIKOAREN EZAUGARRI NABARIAK**

Gaur egungo egoera ekonomikoaren ezaugarri nabariak ondokoak lirakeke:

**Nazioarteko mailan atzerapen ekonomikoa.** Landu gabeko produktu nazionalaren haziera gutxitu da OCDEko herrialdeetan azken hiru urteotan. Ondorio gisa, langeldiketa haziko da eta gaur egungo 20 milioitatik 23 milioitara igango da, 1981, urte erdian.

**Barne mailan industri ekintza ahultzeko joera dago.**

Esportapenen indar galtzea, kontsumuaren beheraketa, biak langeldiketarik eta langilean erdieste-ahalmena-ren galeratik sortuak, eta inbertsio eskasa ditugu ahuldura honen etorburu.


**Langeldiketaren gehipen zozoa eta enpleguaren erorkera zailuak** sorterazi ditu ekonomi jaitsaldiak, persektibarik ezak, entrepresa hixte eta krisiak. 1980.ean 500.000 lagun langabe geratuko dira eta langabeziak 1.800.000 pertsona hartuko ditu. Ezin bestean gehitu egingo da langabezia.

**Produktu ez-elikagarrien prezio-erritmua %20tik gorakoa da.**

Ba diraute, beraz, inflaziozko tirabira bertitzek, haren erritmua % 15etik goiti dagoelarik.

1980.eko pagamendu balantzaren defizita 4.500 milioi (lau miliar t'erdi) hurreratuko da, inportapenak hazten direlako eta esportapenak urrituz doazelako. Pezetaren debaluazioa % 8koa da urteko lehenengo zortzi hilabeteetan.

**Politika ekonomikoaren bereizgarria langileen interesei erasotze etengabea da.** Egoera ekonomiko txartuari eta funtsezko arazoei aurpegi emateko ez gauza izan da, ordea. Gobernu berriak politika ekonomikoa definitu, xedatu beharko du.





# TELEFILMEAK

## GAIZTOAK ALDATU

Orain dela hamar edo hamabost urteko tirodun telefimeak eta oraingoak konparatzen dituen edozeinek, gauza oso simple bat ikus dezake: onak, lehen bezala, guapoak eta eskoitiarrak dira, ordenaren eta legearen defendatzaileak. Berba batetan: "fatxa" batzu. Gaiztoak aldiz, aldatu egin dira. Lehen, forajidoak, bandidoak, lapurrak, erhaileak eta abar eta abar ziren, Orain, terroristak ala droga-saltzaileak.

## ONAK MANTENDU

Honen argibide arketipikoa EL SANTO dugu. Ulea ondo orraztuta segitzen du, baina orain lur-aire misilak tiratzen dituzten edo politiko famatuen kontra atentatuak prestatzen dituzten terroristen kontra dabil.

## ABERATS TXORIZOAK

Eta benetako terroristetatik aparte, kristoren txaletak eta villak eta yate izugarrietan dabilen magnate sail bat agertzen da: disparatzen dutenen atzean daudenak dira hauk. Kasualitatez, txorizo hauk (nahiz eta ez zaien honela deitzen), italiarrak edo grekoak edo hegoamerikarrak dira, sekula ere ez iparramerikarrak edo ingelesak.

## ERHAILKETAK

Terroristak, zelan ez?, beltzaranak, ule txirikilodunak (kuskuildunak) eta bibotedunak dira. Batzutan baita arabiarrak edo beltzak ere. Erhailteagatik erhailtzen dute, beste batzuk eraginda ala kokoloak direlako.

Zelan edukiko dute motibo logikorik egiten dutena egiteko?

## IKUSTEN EZ DEN TXERRIA

Terrorista garbiak eta terrorista lohiak beti galtzen dute. Dena dela, guri beti geratzen zaigu duda bat: nork saltzen dizkio armak terrorista horri?, ze argi dagoelako berak fabrikatzen ez dituen. Hori ez da sekula pelikuletan azaltzen, nahiz eta batzutan pistaren bat eman. Adibidez, gaizto batez esaten da CIA-tik kanporatua izan dela, edo oraindino txarrago, KGB-koa dela.

Detaille moduan, RTVE-k serie hau arratsaldeetan botatzen du, umeen orduan, Ameriketako Estatu Batuen aintza eta ohererako zerbitzari den UCD-renarako Amen.

J.R.B.

EL PAPUS-eko TELE COÑAS-etik itzulia



# BREIZ-ETI

Breiz edo Britainia, hain kideko dugun Europako Herria. Nazio eta hizkuntza baztertu eta zapalduak, Frantziako estatuaren barnean.

Bere musika aski ongi ezagutua gure Herrian, kantari batzuei esker, Gwendal, Alan Stivel eta beste. Baina hau alde batera utziz, egia esateko ez dugu informazio gehiegirik Britainiako kultura eta Herriari buruz.

Aurtengo udaran eginiko bidaiatxo bat aitzakitzat harturik, goazen azaletik aztertzera, zenbait ohar txo emanik, pixkat hobeto ezagut dezazuen.

Geografikoki, Frantziako penintsula mendebaldearenean kokatzen da eta Estatu Frantsesaren antolamenduan departamentu hauek osatzen dute, **Finisterre, Côtes du Nord, Ille-et-Vilaine** eta **Morbihan**, hauek osorik, eta beste departamentu baten zati batek ere, **Loire-Atlantique**, hain zuzen Nantes aurkitzen denarena.

Bertan agertzen zaizkigun izen batzu entzunak dira, adibidez, Finisterre, Cornouaille. Noski, Europak Atlantikoan sartzen duen beste mutur bat delako, eta honetan antz handia Galiziarekin eta Inglaterraren hego aldearekin.

Itasesertza oso irregularra du sartu-irten askoz osatua. Hau da gogoan geratzen dena hain zuzen ere Britainiatik bidaia bat egin ondoren. Labar biluziak, itsas higitsu batek landuak, lurmutur harroak, badia zabalak, hondar fineko hondartzak. Eta itsasoan galduta edo eta itsasbaterretik hurbil Britainiako irlak, bakoitza bere nortasunaz: "Belle-Ile", "Batz", "Ouessant"...

Barneko Britainiak osterantzean, ohian txo berdeak, hauek mugatzen, eta gero eta hedatuago, laborantzako lurak eskeintzen dizkigu.

Britainiako hiri nagusiak itsasaldean kokatzen dira, arrantzaleak batzu, Concarneau, Douarnenez, St. Malo..., merkatariak beste, Nantes, St. Nazaire, eta bi militarrek, Brest eta Lorient.

Barnean, Rennes ez ezik, ez dugu hiri handirik.

Abelazkuntza, arrantza eta turismoa dira, Britainiako populazioan, gehiengo baten bizibideak. Industria oraintsu arte, Loire hibaieren estuarian salbu, eskasa izan da, eta gehiena kontserba fabrikak eta untzigintzan. Baina azken urteotan Frantziako enpresa handi batzu lantegiak ezarriz, bai eta bertan unibertsitate laboralak koka-



Karnag (Carnac) inguruan. "Kermario" izeneko menhir lerroztapenak.

tuz, eta bertako gazteen sakaldiari esker, Britainiako industrigintzari bultzada handia eman zaio.

## Britainia mystikoa

Kristo jaio baino lehen, Britainiako lurraldeak bazuten zerbait misterios. Menhirrak inon baino gehiago aurki zitezkeen. Eta ez soilik eta banan banan, multzo ikaragarri handietan baizik. Karnag-eko (Carnac) inguruetan bakarrik hiru mila baino gehiago. Eta ez ziren, urte guti batzutan eraiki. Arkeologoen ustez, Kristo aurreko 5.000 eta 2.000 urteen tartean ezarri ziren. Eta nortzuk? Bada Galoak heldu aurreko gaizki ezaguturiko herriek. Noski teknika aski aurreratua izan behar zuten halako harriak mugitzeko, kontutan izanik, kantitateaz gainera, harri handienak 350 toneladakoak direla.

Menhir lerroztapen hauek, paraleloki kokaturik, batzu mendebaldera begira daudelarik, hemiziklo edo kromlech —etan bukatzen dira. Beste batzu elkarren artean gurutzatzen dira. Batzu eta beste astronomikoki kokaturik dirudite.

Badira ere zenbait dolmen, hauek hilobitzat hartzen dira zihurki. Lurrez estalita zeuden, eta batzuk horrela jarraitzen dute. Lurpila horri "tumulus" deitzen zaio. Ezagunena Karnag-eko St. Michel-ekoa dugu.

Fenomeno megalitiko hau, mende askotan zehar, Britainiako bizitza mystikoari loturik joan da. Erromanoek menhir batzu, heuren zeremonietara moldatu zituzten, harrian bertan Jainko erromanoen irudiak zizelkatuz.

Kristau erlijioak ere aprobe txatu ditu, santifikatzen, gainean gurutze bat jartzen edo eta bere simboloak harrian grabatzen.

Kontua da, herriak, nola edo hala, harri hauek beneratzen segitu duela mendeetan zehar.

## Bretoiera

Alde linguistikoa eta etnikoari begira, bretoiak galoengandik, frantsesengandik baino hurbilago aurkitzen dira. Britainiako mendebaldean egun mintzatzen den hizkuntza "Keltiar Hizkuntzen taldekoa da. Baina ez da Galiar Hizkuntzeren Hastarren bat, zein IV. mendean desagertu zen, baizik eta berarekin ahaideturiko hizkuntza, eta Britainia Handitik ekarritakoa anglo eta saxoiaren inbasioen garaian, V eta VI. mendean.

Beraz Armorika-n (peninsularen izen zaharra) finkatu ziren, Britainia Handitik zetozen iheslariek, ekarri zuten bretoiera eta bai Britainia izen berria.

IX. mendean NOMINOE-ren erreinuan, Britainiak bere goren puntua ezagutu zuen

# K ZEHAR

eta bere hizkuntzak hedapenik zabalena (ia penintsula osoa hartuz).

X. mendean berriz, batasun politikoa apurtzen da eta hizkuntzak atzerakada handia du. Bai Normandoen inbasioen erruz eta bai feudal gizartearen ezartzearekin.

XI. mendetik aurrera, bretoiera, hizketan normalizazen da. Idatzi ere egiten da, baina Erdi Aro osoan latinetik eta frantsesetik, lan erlijioso eta moralistak itzuli baino ez da egiten. XV. mendetik aurrera baditugu lehen lan orijinalak, "Misterio" (bertako santuen bizitzekin eginiko kondairak) batzu haien zuzen.

Eromantizismoarekin hasten dira intelektualek idatzitako lanak. Batez ere 1.845etik aurrera "Hersart de la Villemarqué"-k idatzitako "Barzaz-Breiz" lanari esker. Honen agertzearekin batera, bretoi idatziaren bilte linguistikoa eta ortografikoa eman baitzen. Bretoi Batu hau, batik bat "Jean François LE GONIDEC" gramatikariaren lana izan zen.

Gaur egun Bretainia bi zatitan banatzen da, eta hain zuzen ere hizkuntzari dagokion mugari (isoglosa) jarraituz.

Behe-Bretainia (mendebaldean) eta Bretainia Garaia (ekialdean).

Bretoia Behe-Bretainian mintzatzen da. Muga St. Brieuc, iparraldean hasi eta Vannes ondoan hegoaldean amaitzen da. Lau

dialekto nagusi daude, LEONEkoa, TREGUIERkoa, CORNUAILLEkoa eta VANNES ekoa.

Hizkuntza literarioan lehenengoa dugu nagusi, halegia Brest, Behe-Bretainiako hiriburuaren inguruko lurraldekoa.

Gaur egun milioietik gora dira bretoieraz mintzatzen direnak. Eta beraz Keltar Hizkuntzen artean nagusi, mintzatzaleei begira bederen.

U.D.B. (Union pour la défense de la langue bretonne) elkarteak, bretoiera irakaskuntzan sartzearen aldeko kanpaina bat eraman zuen, behinik behin Behe-Bretainian. Eta lortu zuen Instituto edo Lyzeo eta Maisu Eskoletan eman zedin.

Bretainia Garaia doakionez, Rennes II Unibertsitatean, Keltikoaren Saila dute. Aspaldidanik eskatzen dela "Keltar Hizkuntzen Instituto" bat ere.

Frantseasa da oraingoz intelektual eta ikasien hizkuntza. Ahal izango da bretoiera bestearen paperaz jabetu? Aurka, industrializazioa, soldadutza, zinea, telebista eta turismoa ditu (kontutan har, Provence ondoren Frantziako lurralde turistizatuena dela. Eta hau ulergarri dugu, Ipar Euskal Herriko itsasaldean gertatzen denari begiratu). Zein izango da bere etorkizuna maila guztietako hizkuntza normalizatu bezala? Dakusagunez, bretoierari euskarari bezala-

ko arazoak planteiatzen zaizkio, eta egia esan mundu osoan hizkuntza ofizial ez diren guztiei berdin. Izan gaitezen baikorrak.

Beste garaietako hedapen zabalaren ondorioz, gaur egun bretoiera mintzatzen ez den zenbait tokitan, toponimiän anitz haztarren daude. Dena den Bretainia osoan genekusazkenetatik aipa ditzagun nagusiak:

- **Ploe, plou, plo** edo **plea**. Adierazten dute **parrokia**. Eta honela "Ploudaniel" (S. Danielen parrokia), "Ploermeil" (S. Armeil-en parrokia), "Pleumeur" (parrokia handia) etab.

- **Tre**. Adierazten du **parrokiaren subdibisioa**. Eta honela "Trégouët" (ohianeko auzoa)...

- **Loc**. Adierazten du **tokia**. Eta honela "Locmaria" (Mariaren tokia), "Locronan" (S. Renan-en tokia) etab.

- **Lann**. Adierazten du **eliza**. Eta honela "Lannion" (Donibaneren eliza), "Lampaul" (S. Paulen eliza), eta beste.

- **Ker**. Adierazten du **etxea**. Eta honela "Kermaria" (Mariaren etxea), "Kerguen" (etxe zuria), etab.

- **Guic, gui**. Adierazten dute **hiria**. Eta honela "Guimiliau" (S. Meliau-ren hiria), etab.

- **Traon, trou, tro**. Adierazten dute **harana**. Eta honela "Tromelin" (haraneko errota), "Tromeur" (haran handia)...

- **Coat, goat, goet, hoet**. Adierazten dute **oihana**. Eta honela "Huelgoat" (oihan garaia), "Kergoat" (oihanetxe), "Penhoet" (oihan bazterra), eta beste.

Antton Azkargorta



Bretainia Mystikoaren beste fenomeno eza-gun bat. "Kalbariuak".



Bretainiar anderea, buruko kota bereziaz horniturik, eskulanak saltzen.

# BRASIL, EZEZAGUN HORI

Gutariko askok Brasil-**ez** dakien guztia zera da, han Rio-ko ihauteriak daudela, Amazonas itzela omen dela, eta samba delako dantza dantzaten dutela; eta... zer gehiago? Zer dakigu herri handi horren jendeetaz, bizimoduaz, antolaketa sozio-politikoaz, bizitza kulturalaz? Ezer gutxi, kasu gehienetan.

Nik honetazko informazio pixkat daukadanez gero, dakidana baten bati interesa dakiokelakoan, eta gainera. Hego Amerikako aktualtasuna, zoritxarrez, inoiz baino handiago delakoan, hau idaztea bururatu zait.

Derragun, hasteko, Brasil hain estatu handia izanik, ezin dela hango irudi global bat eman, zeren eta herrialde bakoitzean, egoera desberdina dagoen. Baina saiatuko naiz ahalik eta irudi bateratsuen bat ematera.

Brasil-en hedadura ia Europa osoarena izanik, aurtengo biztanleen kopurua ehun eta hogeitarairu miloitakoa izan da: jendea, gehienbat, portugaldar kolonizaille eta hara eramandako esklabu afrikatarren seme-alabak dira. Ba daude ere aspalditik bertakoak direnetakoak, baina ez asko, eta batez ere, Amazonas hibiaren inguruan.

Hango lurra oso aberatsa da; alde baretetik, klima bero eta heze delarik, lurremaitza oso handia da; hala, kafea, seska, kakaoa, artoa, arzoa, ekilorea, soia, eta fruituak kantitate handitan ematen dira han.

Bestalde, mineralen aberastasuna eza-guna zaigu aspalditik: burdina, urrea, zilarra, bauxita, diamanteak, sufrea, ez-tainua, uranioa azken denboretan, etab.

Industriak ere, pausu handiak eman ditu azken urteetan, eta orain, Brasil Hego Amerikako estaturik industrializatuena dela esan daiteke.

Hau dena ikusirik, bizitz maila altua dela pentsa daiteke, eta horrela izan zitekeen, jakina, ondoren adieraziko ditudan gauzak gertatuko ez balira.

Nekazaritza, betitik edo ia, esku gutxitan egon da; hegoaldean batez ere, An-

daluziako egoeraren antzeko bat aurki daiteke, h.d., hango biztanle gehienek, gutxi batzuentzat egiten dutela lan. Eta nekazaritzaren miseriatik alde egitearren, pilaka joaten da jendea zentru industrialak daudeneko hiri haundietarantz, batez ere, ofizialki, hori egitea bultzatu delako.

Baina leku horietan ez dago lanik guztientzat, eta dagoena ez da ondo pagatzen; beraz, ... mixeria berriz, hirietako mendikoa baino askoz izugarriagoa delarik.

Gure herrietan ere, zoritxarrez, ohituak daude aberatsak eta pobreak daudela ikustera, baina hango itzela omen da, hain da nabaria desberdintasuna. Estatu hartan ez dago kasik erdiko klasekorik, baizik eta klase aberts txiki bat, eta gai-nontzekoak, edo ia, pobre-pobreak.

Hain banaketa txarra nola egin den ulertzeko, mekanismo ekonomikoak eta hauexek mantendu eta mantentzen dituen sistema politiko aztertzeari egoki derizot.

Brasil, lehenik diktadore gisa, eta azkenik, hauteskundeetan ateratako botuengatik, lehendakari bezala gobernatu ondoren. 1954. urtean bere burua hil zuen Getulio Vargas-ek, Peron-en antze-

koa izanda, h.d. nazionalista eta populista.

Momentu hartan, oso txarra zen egoera Brasil-en, batez ere, ekonomia aldetik, eta hain zen nahastua ezen Guda-Ministeritzak segurtatu behar izan zuela Juscelino Kubistchek-en agintzera pasatzea. Honen helburu nagusia, bere herria aurrerazi eta industrializatzea zen, eta hori burutzeko, Brasil kapital atzerri-tarrari ireki zion, eta laster hartuko zuten kanpotarrek zegoen industria eta berriaren kontrola.

Lehendakari honen programa, energia, garraiobideak eta produkzio-industria desairroloan zetzan, eta bera izan zen, ere. Brasileko irudi berria ematearren, Brasilia eraikitzea erabaki izan zuena.

Kubistchek boterean egon zeneko zazpi urteetan, asko aldatu zen estatuaren egoera; industrializapena handituz zihoan, bai, baina aldi berean, desberdintasun sozialak sakontzen ziren (adibide gisa, 1960. urtean, biztanleen 1%-ak, irabazien 20% hartzen zuen). Bestalde, prozesu horri esker, talde berri bat agertuko da gizarte brasildarrean: zuzendariak, abokatuak, injeniariak, "public relations"-ak, etab. h.d., jabeak ez izanik, jabeen interesei lotura egongo direnak.

Egoera honekin egin zuen topo Janio Quadros-ek, 1961. urtean boterea hartu zuenean. Beraren gobernuaren helburu garrantzikoena, inflazioa geratzea izan zen, eta horretarako, kreditoak eta soldadak balaztatuz gainera, ez dio batere laguntzarik inportazioari.

Baina beraren gestioa guztiz anbiguo izan zan, eta 6 hilabete iragan ondoren, botereari muzin egin zionean, hain zegoen dena nahastua, ezen argi ez baitzen geratu hurrengo lehendakariaren izendatzea, h.d., Joao Goulart-ena.

Honen gobernuak, aurrekoek bilatzen zutenaren atzetik bazebilen ere, h.d., desarrollo ekonomikoaren bila, gogor ekin zion erreforma estrukturak egiteari nekazaritza, bizilekuak, hezkuntza, fis-koa....



Baina ekonomia aldetik arazo latzak eduki bazituen pagubalantzaren desorekarengatik, politikoki ere ez zen ondoegi ibili, zeren eskuina beraren kontra agertzen zen bitartean, ezkerre talde txikitan zegoen zatitua, nazioa "salbatzearen" aitzakiaz.

Agitazioa garaiezina izatera heldu zenean, Goulart-ek bere erreforma-programa aurrera eramatea erabi zuen:

- nekazal erreforma.
- erreforma politikoa.
- unibertsital erreforma.
- konstituzioaren aldatzea.
- Oinarrizko aldatetaz, erreferendumen bidez, herriari galdetzea.

Baina gehiegi izan zen hari klase dominantzailearentzat, eta boterea eta dirua galtzera zihoala ikustean, eliza atzerakoiaren laguntzaz, erdiko klasea bultzatu zuen, masa herrikoen kontrako burruka anti-komunista egitera. Horrelatan, "Familia, Jaungoikoa eta askatasuna" ren aldeko ibilaldiak prestatu ziren etengabe, eta inflakzioak mintzen zuen erdiko klasea, prentsa atzerakoiaren bultzadaz, eskuinerantz bihurtu zen.

Eta 1964. urtean, marxoaren 31ean, militarrek Goulart egozten dute, eta boterea hartu.

Ondorioak erraz imajinagarriak dira: exekutiboari aparteko botereak ematen dizkiote, bera indirektuki izango da hautatua, eta garrantzitsuena dean, komunismoaren kontrako burrukara lantzen dira, nahiz eta agiritan, desarroi ekonomikoa eta justizia sozialaren alde burruka egitearren boterea hartu dutela esan.

Militarren hiru lehen urteetan, ez zen hartu erabaki ekonomiko handirik, eta jende xehearen deskontentua, goraka joan zen arin, 1967. urteko amaieran, ikasleak, intelektualak eta langileak kalera irten zirelarik. Beraien soldaten igoera eta bizitza politikoa parte hartzea eskatzen zuten soilik, baina agitazioa geldierazi nahian, 1968.eko abenduan, 5 Akta konstituzionala dekretatu zen, zeinetan, exekutiboari legislatiboaren boterea gehitzen zitzaizkion, eta gainera, esku-bide pertsonak eta sozialak desagertzen ziren.

Eta urte berean hasi zen geroago "mirari brasildarra" deituko zena, h.d. desarroi ekonomikoaren azelerazioa, kapital eta inbertipenen internazionaltzea, eta biztanleen gehiengoa metatzetik eta aurrerakuntza teknikoetatik urruneraztea, eta irabazien kontzentrazioa.

Prozesu hau zela eta, inflakzioak goraka egin zuen izugarri, eta honi fiskoaren aldakuntzak abantailak soilik aberatsei eta erdiko klaseari ekarri zizkiola gehitzen bazaio, argi dago nola joan ziren areagotuz klaseen desberdintasunak.

Egoera hori zela, Gal. Medici lehendakariak, herriari "demokrazia" zor ziola pentsatu bide zuen, eta hauteskundeak antolatu zituen 1970. urtean. Gobernuaren alderdiak gehiengoa lortu zuen beraietan, batez ere, komunikabideetatik eman zen informazio oso zuzendurik zegoelako.



"Ibiltasunaren kultura" k tente segitu zuen Medici-ren gobernuak iraun zuen bitartean, eta denborarekin, desmobilizazio handia lortu izan dute.

Irekitasun politikoa aurrera doa, astiro baina seguru, 1975. urtetik, baina ez da ezer atera gobernuak markaturiko lineetatik, alde batetik, hau oso dinamikoa izan delako, eta bestetik, arestian aipatu dugun desmobilizazioa, eta oposizioa hain zatitua eta ezgauza izateagatik.

Beraz, oraintxe bertan, nahiz eta pluralismoa onartuta, 5. Akta Konstituzionala deuseztatua, eta egoera ekonomikoa gehienentzat gero eta txarrago diren, hor segitzen du erregiminak, boteretsu, finko, 16 urtetan zehar egin duten politika apurtzailearen fruituak dastatzen.

Noiz arte iraungo duen galdetzea alferrikakoa iruditzen zait, oraindik lan handi egiteko, eta kontzientzia asko aldatzeko geratzen da eta.

Maria Jesus Esteban



"Sekuritate-krisiaren problema ia 100 urte da zaharra. Azken mendearen bukaeran, Marx-ek "Kapitala" argitaratzen du, eta jabego pribauaren karaktere ukiezina kuestionatzen du; mende honetan, hasieran, gure barne-bizitzaren espazio sakratua Freud-ek atakatua da bere "Ametsen interpretazioan"; eta 1905.ean Einstein-ek "Erlatibitate Teoria" enuntziatzen du, zeinetan materiaren kondizio geldo eta estatikoa krisitan jartzen baitu... Orduan Mendebaldeko gizonak bere sinismenak laban egiten hasi direla sentitzen du eta... baloreen Apokalipsis bat heltzen ari dela".

*Ba dira lau urte eta piku Argentinan militarrek kolpea eman zutela. Ordutik aurrera, kanpotik ikusita, gauzak ongi doaz han: football-txapelketak eta Buenos Aires-en lahehungarren urteurrenak irudi baikor bat ematera lagundu dute.*

*Baina beste gauza asko gertatu dira. Gobernuaren ekintza oso efektiboa izan da kontrako izan daitekeen guztiaren garbiketa egiten. Harguindeguy jaunaren profesionaltasuna ukiezina izan da horretan. Errepresioa sozietateko maila guztietara heldu da, eta momentu honetan desagertuen eta hildakoen kopurua gutxitzen ari da... gai izan daitekeen inor geratzen ez delako.*

#### IRAULTZA ETA HEZIKETA

Zer esanik ez, aurretik zegoen heziketa-sistema raultza militarrekin deuseztapenera doa. Ehun urtetan iraun duen eskola publiko, laiko eta kalitatezkoa, eskola pribatu eta konfesional baten bidez ordezkaturia izaten hasi da, eta aurretik populazio-maila desberdinen biltzaile zena (pentsatu behar da Argentinako jendearen jatorri kosmopolita) orain bantzaile bilakatu delarik.

Eta heziketa-sistema berriaren kritikazaila izan zitezkeenak erahilak edo gartzelatuak edo herbesteratuak izan direnez, Argentinako irakasleak zer esan jakin gabe geratu dira, Boteredunen ortodoxiaren zai. Eta Boterea mintzatu da. 1978.eko Azilaren 26an, Cordobako gobernuak (Argentina Errepublikak Federal bat da) matematika modernoaren irakaskuntza debekatzen du, subertsibo dela kontsideratzen baita. Erabaki hau Buenos Aires-ko eta Santa Fe-ko Gobernuak ere jarraitzen dute. Hiru probintzia horietan Nazioko populazioaren 30% bizi da.

Ordurarte, militarrek ez ziren geldirik egon. Liburutegietako liburu asko debekatuak edo publikoki erreak izan ziren

# ARGENTINAKO MILITARREN EREDUA

## ZIENTZIA MODERNOA EZ'BAINA JOSTAILU ATOMIKOAK BAI

(besteren artean, Chomsky, Vargas Llosa, Ivan Illich,...). Unibertsitateko Sekretari Akademiko zen Aire-Harmadako Oscar Julia Generala, Marx eta Freud kriminale ideologikoetaz mintzatzen zen. Cordoba-n zeuden 50 psikoanalistetatik orain ez omen da bat ere geratzen, "Siglo XXI" editoriala suntsitua. Eta abar luze bat.

#### DESARRAZOAREN ARRAZOIAK

Matematika modernoaren debekapenak eztabaida bat ekarri zuen Argentinan bertan. Honelako arbitrariedade bat ezin zitekeen erantzun gabe geratu. "La Nación" delako berripaperak "Nor da bektoreen beldur?" izeneko editorial bat publikatu zuen, eta zenbait jenderen eritziak argitaratu zituen (Ernesto Sabato Idazlerena - fisikari ere baita- tarteko).

Buenos Aires-ko "Confirmado" eta "Extra" astekariak eman zituzten Cordoba-ko Gobernuaren arrazoiak debeku hori ateratzeko. Arrazoi garrantzitsuenetariko bat hau izan zen: Dieudonne matematikari frantsesak 1959.ean Royumont-en egindako batzarre batetan, ze-

**Matematika modernoaren debekapenak eztabaida bat ekarri zuen Argentinan bertan.**

ra esan omen zuen: "Behera Euklides!". Eta esaldi horrekin, Matematikek zeukaten neultraltasun ideologikoa gal zezaketen, eta iraultzaren zerbitzuan harma bat bilaka zitekeen.


Hona hemen beste arrazoi batzu, "Extra"-tik aterata: "Matematika modernoak Aristoteles-ek erakutsitako prozedurak ez direnak erakusten ditu... honek gure irudi tradizionalen konfidantza-falta bat darakar, eta subertsioa kuraizatzen du... Matematikaren zenbait gaiek "bektore" eta "matrize" bezalako hitzak erabiltzen dituzte, zeintzuk hiztegi Marxista edo subertsibo batetako tipikoak diren. Gauza berdina gertatzen da multzo-teoriarekin, zeinek, argi dagoenez, multitudeak ebokatzera eta masifikatzera jotzen baitu".

Halaber, "gurasoak matematika modernoaren tekniketaz eta kontzeptuetaz jabeturik ez daudenez, beraien haurrak ezin dute lagundu irakasleek jarritako ariketetan, problema familiarak sortuz eta subertsio-eremu bat erraztuz". Gu-

rasoek matematika modernorik ikasi ezin balute bezala!

### POLITIKOEN ZIENTZIA

Matematika modernoari tokatu zaiona ez da puntu bat baizik. 1977.eko bukarran Emilio Massera Almiranteak Universidad del Salvador - Buenos Aires-ko Unibertsitate katoliko bat - delakoan



ohorezko Profesore (!) izendatu zutenean egindako hitzaldian, zera esan zuen!

"Sekuritate-krisiaren problema ia 100 urte da zaharra. Azken mendearan bukaeran, Marx-ek "Kapitala" argitaratzen du, eta jabego pribauaren karaktere ukiezina kuestionatzen du; mende hone-tan, hasieran, gure barne-bizitzaren espazio sakratua Freud-ek atakatu da bere "Ametsen interpretazioan"; eta 1905. ean Einstein-ek "Erlatibitate Teoria" enuntziatzen du, zeinetan materiaren kondizio geldo eta estatikoa krisitan jartzen baitu... Orduan Mendebaldeko gizonak bere sinismenak laban egiten hasi direla sentitzen du eta... baloreen Apokalipsis bat heltzen ari dela".

Almirante-profesoreak aipatzen dituen hiru izenak juduenak izatea deigarri da, eta Darwin edo Heisenberg ez aipatzea. Konspirazio judu-komunista ote?

Zoritxarrez, Argentinako diktadura inoiz baino gogorrago dagoela dirudi: Estatu Batuek toleratua; eta errusoez suportatua, ez dirudi nazioarteko arazoek erregimena bigun eraziko dutenik. Gainera, alemanek saldutako ekipamendu nuklearrari esker, lehergailu atomikoak egiteko ahalmena hurbil dute: Zientzia modernoa ez, baina jostailu atomikoak bai.

**Arrazoi garrantitsunetariko bat hau izan zen: Dieudonne matematikari frantsesak 1959.ean Royaumont-en egindako batzarre batetan, zera esan omen zuen: "Behera Euklides!". Eta esaldi horrekin, Matematikek zeukaten neultraltasun ideologikoa gal zezaketen, eta iraultzaren zerbitzuan harma bat bilaka zitekeen.**

I. Zuazo



# KABYLIARI BURUZ BI HITZ

Kabyliako gauzak gertatu zirenean, Algerian nintzelarik, artikulua horren bidez gauzatxo batzuk nahi nituzke azaldu, Algerian bertatxe oharatu ditu danak... Orain arte behintzat, "zango beltzak" eta Algerian izandako Europarrak ezik, jende guttik daki Algeriako Ethnografiari buruz.

Kabyliak ethni berberoaren (edo —imazighen— berberoeraz esan da) zati bat osatzen dute, —djurdjura— Mendietan (Kabyli handia edo altua) eta —babor— Mendietan (Kabyli txikia) kokatua. Herrialde bietatik kanpoan ere bai hedatzen da ethni berbera Algerian: Aurés-tan (chaouia leinuak) —hoggar— Mendietan (touareg), Ghardaián (mozabitak), herrixka batzuk ouarsenisko mendietan eta kostaldean Tenes eta Cherchell artean. Ikusten ahal denez ez daiteke esan Algeriako herria bat dela, muga horiek guztiz artifizialak direla, Europako imperialismoaren ondorioak baizik ez direla. Nahiz-ta errealtatea horrela izan Algeriako konstituzioak bere lehengo artikuluan (Frantziarena bezalaxe) dio "Errepublikak bata da eta ezin partituzkoa"; horrek esan nahi baitu minoriak ez direla ofizialki onhartuak; benetan horixe da tristena: Algeriarrek imperialismo gogorrean burukatu zutenak (Algeria frantziaren partetik nazio bezala ukatua zen) sistema berdiña muntatzen dute beren minorien kontra. Berberoek ez dute eskolarik beren hizkuntza aurreratzeko, Kabylian bertan daudenen geihengoak, emakumeek bereziki ama-hizkuntza baizik ez dakite (edo frantsesa pixka bat). Gizonezkoek, arabe—dun—ekin geihagotan harremanetan daudela-eta hizkuntza bi edo hiru dakizkete. Badaude kantari batzuk Kabylerazko diskoak ofizialki zabaltzen dutenak; adibidez idir, aít menguelet eta emakumezko talde bat. Kantari horiek ez dituzte zabaltzen politikazko kantuak hori ofizialki debekatua baita; baina kantu herri koiak askotan aire moderno gaztez antolatuta (Allan Stivellek egiten duen bezala) eta kantu berriak adierazten dituzte. Ofizialki Estatu Algeriarrak kultura herrikoia dagoen bezala onartzen du; baina zoritxarrez horrelako lege batek kultura berberarentzat oztopo bat da ez baito etorkizunarako bidea irekitzen. unibertsitatean adibidez kultura berberoak ez dauka lekurik eta hortik sortu dira aurtengo gertakizunak.

Han nengoela eritzi asko entzun nituen horri buruz, kabylena ezik zoritxarrez. Ara-

beek diote kabyiak bizimoduz "Arraziztak" direla aparteko bizimodu bat daukatelako eta politika mailan traidoreak direla, adibidez, joan den Maiatzan eztabaida batzuk sortu dira El asnam-en (herri hau kabyliatik kanpoan dago) bizi diren kabyliar emigratu eta bertakoen artean eztabaida bat sortu zen tizi ouzoo-ko gauza zela medio. Arabee (eta ikus puntu ofizialak ere bai) ez dute kabylera hizkuntzat hartu nahi dialektotzat baizik. Arabe gazte batek kabyliak izan litekeela Kurdistain edo Israél berri bat (konparazio bat baldin badago behintzat!) eta errepresio gogor bat sortuko dela. Orduan nabari dago kabyliako abertzaletasun azaltzen denean. Arabee sentimentu antikabyl bat eta gorrotoa erakusten oi dituzte. Lehenago frantses kolonialismoak asmo arrazista sartu zuen algeriar guztien bihotzetan. Theori bat eraiki zuten kabyiak aspaldin europatik etorri zirela aipatzen zuena; (esan behar da hori mytho hutsa dela; hori frogatzeko ez dagoela ezer, baina oraindik jende askok horixe sinesten du); honengatik arabeak baino balio geihago zuten eta kolonialismoak izugarriko diferentzia bat egi-

ten zuen herri bien artean, kabyliak erresponzabilitate geihago eta abantaila geihago emanez. Gaurko Algerian ikus daiteke erresponzabilitate altuenak bai politikan bai entepresetan kabyliarrek daukatela. Baita ere gauza horretaz baliatzen da Algeriako gobernuak kabyliak abertzaletasuna belzteko; prentsak zabaldu zuen kabyliako asuntua kanpoan muntatua zela eta muntatzaileek kolonialismoaren nostalgiko batzuk zirela. Baina Algeriako iraultzaren historia badakusagu nabari da kabylian beste herri aldeetan bezin bat gudari izan direla; orduan pentsa dezakegu gaurtxe kabyli gazte batzuk kabyliaren alde beren burua ematen baldinbadute ez dutela Algeriako iraultza ukatu nahi. Lehenago nahiz berberoa, nahiz arabea, bakoitzak burukutzen ari zen frantses kolonialismoaren kontra; baina kabyliaren bihotzetan beren lurraldeko nortasuna kontserbatzea beti bizia izan da, eta orain arabizazio kanpaina aurrean beste ikuspegi bat hartzen ari da: Algeria modernoan kabyliaren nortasuna zabaltea.

J. Lafitte



Alger: Gaurko Algerian ikus daiteke erresponzabilitate altuenak bai politikan bai entepresentan kabyliarrek daukatela.



# ELKARRIZKETA

## BIZIAK

- Zer duzu maiteen mundu honetan?

Nik bizia dut maiteen, abstrakziorik gabe, bizi osoa.

- Zer pentsatzen duzu hemengo talde politikoei buruz?

Horixe: talde direla, eta denok bat egin arte, ez dugula ezertxo ere lortuko. Dena den, ez litzaidake gustatuko jende guztia eritzi batekoa izatea, baizik eta abertzaletasunean aglutinakorra aurkitzea.

- Zeintzu izen aipatuko zenituzke gustora?

Maitatu egin dutenenak: Txe, Buda, Kristo, Gandhi, Luther King, Lanza del Vasto, Rosa Luxembourg, Chavez, eta horrelakorik.

- Zer nolako literatura gustatzen zaizu?

Euskaraz idatzia dagoen ia guztia irakurtzen dut. Baina azken honetan idazle anitz saiatzten da bere nahaste mentala besteai adierazten, eta nire eritzi, maisu-lanik gutxi idazten da. Erdaraz, Hego Amerikako nobelagintza oso gustokoa dut, eta ideologiaz, Ekialdeko filosofo eta olerkariak, nahiko hunkitzen naute.

- Zilegi al da belaunaldi biziak etorkizunekoengatik sakrifikatzea?

Bai, dudarik gabe. Ekialdetarren modura pentsatuz berrargituko garela, ia dibinidatea lortu arte, ez nuke zilegi, beharrezko baizik esango, zeren eta lehengo benefiziari gu geu ginateke. Eta aldiz, katolikoaren modura pentsatuz ere, sakrifikatzea ez ote dute dotriña, nahiz eta beste gisara jokatu?. Gehiago sakontzea mereziko luke auzi honek, baina luzeegi litzateke.

- Gizona ezagutzeko aski al da nork bere ezagutzea?

Topikoetan erortzen gara, baina beure burua ezagutzen (sakonki esan nahi dut) saiatzten denak, bidea erraztuko du, eta beste gizonak hobeto konprenituko ditu.

- Zer pentsatzen duzu iraultzari buruz?

### JOKOAREN BALDINTZAK

#### ● INKESTARI DAGOZKIONAK

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete. Gure kolaboratzaileek ere bai.
- 2) Makinaz edo eskuz idatziriko hiru orralde bidali beharko dituzu.
- 3) Euskaraz. (Edozein euskalkiz). Ez kezkarik izan ortografiaraz edo eta joseraz. Zuzentzekotan geuk zuzen dezakegu.
- 4) ASTERIZKOZ DOAZEN HAMAR GALDEREI BEHARREZKOAK DUZU ERANTZUTEA.
- 5) Zuk zure buruari gehiago galdetzeko eta erantzuteko libre zara.
- 6) Izengabetasuna gordeko da inkesta guztietan. Hala ere bidaltzaileak karretaren zenbakia, zuzenbidea eta izena bidali beharko ditu. Alderantziz, ez da argitaraturik izanen.

#### ● IKERKETARI ETA PUNTU EMATEARI

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete.
- 2) Anaitasunako erredakzioa, idazleek edo eta kolaboratzaileek ezin dute atal honetan parterrik hartu.
- 3) Postaz, eta bidaltzailearen izenarekin batera, ematen dituzun puntuak garbi azaldu beharko dituzu, puntuazioaren laukitxoan gurutze bat markatuz.
- 4) Berdin egizi ikerketari dagozkion galderekin, laukitxoan gurutze bat markatuz.

Nik pentsatzen dut, gizona bihurri izan behar duela, instituzionalizatuta dauden lege eta "abarren" aurrean bederen. Beraz, hau horrela ikusirik, iraultza nahitaezkoa iruditzen zait, baina nik, bizia maite dudanez gero, ez dut iraultza ehortzailerik maite, baizik eta geure artean ezagutzen ez dugun beste iraultzaren bat. Ba dakit ordea, idealisten mundua beste galaxia batetan bilatu beharko dudala.

- Euskarak etorkizunik al du?

Euskara, guk euskaldunok nahi duguna izango da, nahiz eta maximalista bilakatu, zinez diotsuet, geugan dagoela bere etorkizuna.

- Anaitasuna aldizkariari bagagozkio, gai berririk zartuko zenuke?

Nik euskalkietan idatziriko elkarrizketak ondo ikusiko nituzke; bai eta idazle berriei eskeinitako horritxo bat beren saioentzat. Eta humorea kendu gabe, gurutzegramak eta antzekoak gehitu.

- Anaitasunaz balorapen bat egin mesedez.

Azken aletan agertu diren eztabaida pertsonalak, lotsagarri, ximple eta irri-garriak iruditu zaizkit. Euskarak bera jo du zenbait artikuloetan, eta edo ez da-

kit behar adina, edota ez daude nahiko ongi osatuak. Bestalde, sarritan Anaitasunaz baliatzen naizenez nire euskara lantzeko, aukera handirik ez dagoenez, Anaitasunarekin jarraituko dut oraindik.

### PUNTU EMATEA

Elkarrizketa eta hori zu k zenbait puntu ematen duzuz? Inura ezazu sinbil batez.

5 - 4 - 3 - 2 - 1 - 0 + 1 + 2 + 3 + 4 + 5

Zure ustez, elkarrizketa on doko adina duke:

- 15tik = 23raio.....
- 23tik = 31raio.....
- 31tik = 39raio.....
- 39tik = 47raio.....
- 47tik aurrera.....

Zure ustez, elkarrizketa:

- emakumea da.....
- gizona da.....

Zure ustez, elkarrizketa:

- kiri handi bat ean bizi da.....
- herri handi batean bizi da.....
- herri txiki edo baserri batean bizi da.....

Zure ustez, elkarrizketa lanbidea duke:

- Esku langilea.....
- langile espezializatua.....
- Arrantzalea edo Baserriarria.....

- Gai tekniko kuadro tekniko (ekonomista, ingeniaria, peritoa, medikua, abokatua), irakaslea, kazetalaria, etab.....
- Behar bada kuadro tekniko (Bulegariak, idazkaria, ingeniaria, etab).....
- Entrepresa txiki baten jabea.....
- Maiztearia.....
- Goi burua.....

# UDAKO IHARDUNALDIAK

## FREINET MUGIMENDUAREN VII. BILTZARREA

Irakaskintzan dihardugunoi Udak hainbat eta hainbat ikastaro eskaini ohi dizkigu: ADARRA, UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA, eta abar luze bat, noski.

Udan, halaber, ospatu ohi dute Freinet mugimenduko irakasleek beren biltzarrea. Aurtengoaz zazpigarrena izan da eta Asturias-en ospatu dute. Euskal Herrian ez du mugimenduhonek eragin haundirik, baina interesik duelakoan hemen doa zenbait ideia eta oharpen.

### HISTORIAREN HILDOTIK.

Mugimendu honen sortzailea, Celestin Freinet, Gars-en (Frantzia) 1896.eko Urriaren 15.ean jaio zen. Majistregoko Karrera egin ahal izan zuen. Europako gerlan, 1916.ean hain zuzen, biriketan zauriturik suertatu zen. 1920.ean, ospitalez ospitale ibili ondoren, Frantziako Hegoaldera dator maisu eta eskolan sartu bezain laister bi gertakariz oharitzen da: 1. Eskola Normaletan ikasleari eman ohi zaion prestakuntza ez da haurrentzat interesgarri. 2. Gaixorik aurkitzen delarik, ezin du klasea beste maisuen gisara eraman, egun osoz hitz jario

batetan.

Honela, klasearen orientabide berri bat asmatzen du, bera guttiago mintzatuz eta hitza haurrei utziz. Hemendik sortzen da Mugimenduentzat hain garrantzizkoa den "**testo librea**". Haurrak nahi dutena, sentitzen dutena, bizi dutena idazten dute, eta ez inposatutako zerbait. Eskolatik kanpo ere lan egiten dute, beren ingurua ezagutzuz, gustatuz eta ikertuz.

Haurren espresioari eta ibilaldi haietatik sortu ohi ziren lanei jarraipena emateko, haurrek erraz maneia dezaketen **inprenta** egiten du. Inprentaren bidez inprimatzen dituzte haurrek beren lanak eta lan guzti hauen bildumak "**Bitzako Liburua**" daruma izenburutzat. Eta hemendik sortzen da Freinet-en beste teknika berri bat. Lehen aipatu liburua, hain zuzen, Bretainia-ko Herriska batetako eskolara iristen da eta hango haurrek, orriak pasatzerakoan, harriturik geratzen ziren, Probertzara bidaia egin bailute sentitzen baitziren. Bretainiakoek ere berea egin zuten eta hor **eskola arteko elkarturkatzea**.

Freinet-ek eta bere lankideek argitaratzen zuten "**L'Éducateur Proletarien**" aldizkariaren bidez mugimenduen ideiak eta lan praktikoa zabalduz zihoazen. 1927.ean ospatu zen lehen

biltzarrea.

1928.ean S. Paul de Vence-ra doa edo; hobe ki, bidaltzen dute. Betiko hildotik jarraitzen dute: testu libreak, inkestak, eskolako kazeta eta bere pedagogiari dagokion guztia. Baina, normala denez, jokabide hau ez da denen gustokoa, burjes eta aberats jendearena ez behintzat. Eta hemen hasten dira bere aurkako kanpainak, idazkiak, informeak eta kasu hauetan erabili ohi diren bide eta artimania guztiak. Azkenez, lortzen dute bidaltzea. Baina, bere pentsakera eta jokabideari amor eman gabe, basoz inguratutako etxe bat bereganatzen du eta han jarraitzen zaio lanari. Hau dena 1935'eko urte inguruan ematen da.

Bigarren Gerla Mundiala eman bezain laister, 1940.eko martxoaren 20an detentzen dute. 1941.ean fascisten aurkako gerrillan parte hartzen du. 1947.ean Vence-ko eskola berrikitzen da. Mugimendua zabalduz doa Europan zehar. 1966.eko Urriaren hil zen.

### IDEOLOGIA

Freinet-en Mugimendua ez da Pedagogia hutsari loturiko zerbait. Ez da Pedagogizismo huts batetan erori. Hasera haseratik oinarritzen da ideologia garbi batetan. Aski da Freinet-en bitzita ezagutzeari. Baina, azaletik bederen,

zehatz dezazun ideologia hori.

Eskola da, noski, klase zapaltzaile eta dominatzailearen aparailu ideologikotarikoa bat. Eskolaz baliatzen da, klase dominatzailea bere interesak defendatzeko, bere ideologia aparailu horren bidez transmitituz eta "heziketaren" bidez produzio eta gizarte moldea birsortuz. 1924.ean, Freinet-ek "Vers l'Ecole du Proletariat" (Proletargoaren Eskola batetaruntz) izenburuko lanean eskolak eman ohi duen ideologia salatzen zuen:

"Hemendik aurrera, justizia, anaitasuna, aberria edo Gizateria hitz borobilpean gordetzen dira ekintzaren benetako mugigarriak: kapitalisten interesak."

Freinet-ek ez du sinesten hainbeste aldarrikatzen den eskola neutral hortan. "Eskola aseptikoa, haur guztien zerbitzutan dagoen eskola, aldarrikatzen dute boterea eta dirua dutenek, baina, eskola oro bezala, eskola bakoitza sortu eta zuzentzen dutenen zerbitzutan dago".

Beraz, garbi dago Freinet-entzat eskola gizarteari, eta konkretuki, giza klase bati loturik dagoena, eta eskolak zerikusirik baduela gizarte honen aldakuntzan.

1976. urtean Salamanca-n ospatu zen III. Biltzarreak honela zioen: "Heziketa zera dela uste dugu: Pertsonaren askapena, lagunkidetasunean dihardugularik, zapalkuntzarik gabeko gizartea sortzen joan gaituzen, giza klaseak desegin arte. Hau gizarte sozialista batetan bakarrik izanen da posible".

... "Langileriaren eta Herri Langilearen burrukan murgildurik gaude klaserik gabeko gizartearen eraikuntzan".

Mugimendua konszient da eskolak ez duela gizartea aldatuko. Baina, halaber, konszient da beste zenbait arlotan dihardutenekin batera lan eginaz, eragin eta garrantzi handia duela. "Ez dago eskubiderik aitortzeko-diotte-sistima politikoaren aldakuntzaren alde burrukatuko garelako eta hori lortzen dugunean pedagogia aldatzen saiatuko garelako. Hau ez da egia. Sozialista deitu Herrialdeetan gertaturikoa frogatu."

## VII. BILTZARREA.

Uztailaren 7tik 12arteko aste barnean Oviedo-n ospatu zen. Asturias, Andalucia, Aragón, Euskadi, Canarias, Baleares, Catalunya, Valencia, León, Castilla, Murcia eta Galicia-ko ordezkariak bildu ziren.

Espainiako Estaduari gagozkolarik, Mugimendua Estatu mailan eratua dago eta Eskualdeko eta Nazionalitate bakoitzeko taldeek, federakuntza forman, osatzen dute. Eskualde



*Freinet-ek ez du sinesten hainbeste aldarrikatzen den eskolan neutral hortan.*

edo Nazionalitateko talde bakoitzak autonomia osoa du eta bere biltzarreak ere ospa ditzazke.

Geuretzat hain garrantzizkoa den puntu honi buruz, 1976.ean Salamanca-n ospatu zen VII. Biltzarrean argi agertzen da mugimendua Espaniar Estaduko nazionalitateei dien begirunea eta errespetoa. Zera zioen:

- Nazionalitateen onarpena.

- Nazionalitateetako kulturaren berreskuratzea, defendatzea eta desarroilatzea.

- Mugimendua Estatu mailan MCEP (Movimiento Cooperativo de Escuela Popular) deitzen da. Gero, nazionalitate mailan lekuko hizkuntzaren arauerako izena har dezake. Esate-batetarako, Gailegoak beste izen batez deitzen dira eta aldizkari bat ere gailego hutsez argitaratzen dute. Estatu mailan aldizkari bat argitaratzen da, nola izenburua hala edukia lau hizkuntzatan idatzirik.

- Biltzarreak bi zati izan ditu: bata teorikoa eta bestea praktikoa. Teoria mailan, gaurko egoera politikoa aztertu zen (lehenik talde txikietan eta gero asanbladan), mugimenduaren eginkizuna eta abar... Freinet-en jokabideari jarraiki, garbi dago gaur Gobernutik ezarri nahi dizkiguten legeak eta plangintzat ezin daitezkeela inolaz ere onar eta gero eta gehiago burrukatu behar garelako Eskola herritarra, dohain, laikoa eta pluralista eta, hemen jakina, euskaldun baten alde.

Granada-ko ordezkari batek zionez "mugimenduaren zutabe nagusiak hauek lirateke: Heziketa haurren desarroilo oso bat bezala eta ez inposapen gisa; haurren bereizkuntzarako errespetoa eta eskola herritar baten eraikuntza, guraso, haur eta irakasleak partaide direlarik. Autogobernaturiko eskola baten alde gaude, beraz Ikastetxeetako Idearioaren kontra. Eskola bakoitzak gurasoek eta haurrek nahi dutena izan behar du".

Arratsalde, seminario praktikoa. Hemen, urtean zehar irakasleek eskoletan egin duten lana agertu, aztertu, kritikatu, baloratu eta elkar zabaldu.

Seminario hauek ospatu ziren:

- 1.- Denbora libre eta koloniak.
- 2.- Matematika
- 3.- Komunikapena.
- 4.- Eskolaurrea. Irakurketa eta idazketa.
- 5.- Globalizapena: eraketa eta ikerketa lehen etapan.
- 6.- Inguruaren ikerketa.
- 7.- Klase gaien prestaketa eta argitalpena.

Euskal Herritik ere bazen ordezkariarik. Hernaniko Langile Ikastolatik, Bizkaiko Estatal Eskoletako batzu eta Iruña eta Gazteizko beste bakarren batzu osatzen dute Euskal Herriko taldea. Gutxitxo, noski, ene iritziak, jakina.

Mugimendukoek, Euskal Herrian hala Estatu mailan, aportunak interesgarriak eskaintzen die Udako Eskolei. Euskal Herrian, ADARRA taldeak antolatzen duen Udako ikastaroan baidute parterik. Seinale ona da, noski meta mugimenduaren gaurkotasuna eta balioa adierazten du.



# BIZITZA PATENTATUA?

Petrolio-lohiune erraldoiak ezabazteko prozedura kimikoak (detergenteak nagusiki) nahiko ez zirela ikusirik, laborategi askotan prozedura biologikoak saiaten hasi ziren. Beste toki batzutan bezala, General Electric multinazionalak Schenecktady-n, New York-en, dituen laborategian ere hidrokarburu-jatun diren bakteriekin experimentatzen hasi ziren 70 hamarkadaren hasieran.

## "ANIMALIA" BERRI BAT

Laborategi horretan, Indian jaiotako Ananda M. Chakrabarty izeneko biologilariak "Pseudomonas" deituriko bakteriekin lanean zihardun. Gauza jakina zen bakteria horik hidrokarburuen kateak apurtzeko ahalmena zutela. Zientzilari honek zera aurkitu zuen; hidrokarburuak apurtzeko ahalmenaren erantzuna zeukaten geneak ez direla bakteriek duten DNA bakarrean aurkitzen, baizik eta zelulan zehar aurkitzen diren plasmidoetan. Gero, bakteria batzutatik plasmidoak ateraz eta beste bakteria batera translandatuz, petrolioaren hidrokarburuak jateko ahalmen izugarritzko bakteria berri bat sortu da. Bakteria berri horik beharrezko diren arte izoztuta mantentzen daitezke.

Petrolio-isuri bat dagoenean, bakteriek petroliora bota daitezke, eta egun batzutan petrolio proteinatan eta karbono dioxidotan transformatua geratuko litzateke. Bukar, petrolioari esker ugaldutako bakteriak, gosez hilgo liriteke.

## BAKTERIAK PATENTATZEN

1972.ean General Electric-k eta Chakrabarty-k bakteria berri hori patentatzera eraman zuten. Eta problema legalak hasten dira. Bakteriak patentagarriak dira, plastiko berri bat bezala edo produkzio-teknika bat bezala? Beste alde batetik, landareen gurutzamenduen ondorioz lortzen diren barietateak ez badira patentatzen, zergatik bakteriak bai?

Gorabehera luzeak pasatuta, 1980.eko Ekainan Estatu Batuetako Tribunal Gorenak bakterioak patenta daitezkeela erabaki du. Erabaki honek ondori ugari ekarriko ditu. Jadanik, Inginadoretza Genetikoaren

ondorio diren 100 organismo baino gehiago itxaroten ari da patentea, eta, behar bada, salmenta. Hor dago, adibidez, intsulina-sintetizatzaile den E. Coli-ren aldaketa bat. Patente-lege honen bidez, honelako "Produktuak" eskuragarriago izango dira, eta lapurreta zientifikoa (patentatu gabeko produktuak) eskuragarriago izango dira, eta lapurreta zientifikoa (patentatu gabeko produktuen artean ugari dena) nolabait gainditua izango da.

## PERSPEKTIBA ZABALAK

Biologiaren eta Biokimikaren alorrean inginadoretza genetikoak duen eremua amagabea da. Momentu honetan —eta urte gutxi barru gehienak ezagutuko ditugu— hauetaz pentsatzen da: airearen nitrogenoa zuzendi fixatzen duten "mamutzak", fertilitzatzaileen dependentzia gutxituz; erregai bereziak sintetizatzen dituztenak; fotosintesiaren etekina areagotzen dutenak; aminoazidoak sintetizatzen dituztenak; industria kimikoaren poluzioa degradatzen dutenak; inguramendua sikintzen duten metaleak eta plastikoak aldatzen dituztenak; mineralak kontzentratzen dituztenak, eta zaborretatik beritzen dituztenak; eta abar luze bat.

## BESTE ZENBAIT ONDORIO

Hala ere, problema batzua aurkitzen dira. Adibidez, noiz esan daiteke bi mikroorganismo berdindela, eta patente bakar baten pean daudela? Aldakuntza minimo bat nahiko izango da beste patente bat betetzeko, laborategi biologiko batetan lan egi-

ten duen ia edonork bere patente propioak ukan ditzake, eta hauziak ugari izango dira.

Baina zientifikoaren patenteen arazoa ez da ezer bakterioaren erabilmen ez-kontrolatu baten ondorioekin konparatuz. Bakteria petrolio-jatunak petrolio-gunetara heltzen badira —eta nahiko da bat heltzea— gune osoa desagertuta geratzeko. Eta ba dirudi arrisku hori ez dela arbuigarri, oraindik ez baita, laborategi hiperseguruetatik kanpo, sekula erabili.



(A! ikasle ingenuo batek pentsatzen badu honelako organismo bat aldatu eta negozio ikaragarri bat egitea, ahanztea hobe, explotazio komertziala eta irabazpenak laborategiko jabearen eskuetan geratzen baitira).

**Gorabehera luzeak pasatuta, 1980.eko Ekainan Estatu Batuetako Tribunal Gorenak bakterioak patenta daitezkeela erabaki du. Erabaki honek ondori ugari ekarriko ditu.**

## EBOLUZIONISMOA ETA KREAZIONISMOA ESTATU BATUETAN

### "KREAZIONISMO ZIENTIFIKOAK"

Baina, hala ere, kreazionismoaren aldeko erakundeek ez dira horrekin baretu. Orain testu-liburuetan eta irakaskuntza "denbora berdinare" lorpena dute helburutzat. Nabarmen da ikustea mogimendu honen atzean ez dagoela erakunde erlijiosorik, dirudenez, Konstituzioaren 1. Zuzenketaren kontra ez joatearren (Zuzenketa horiek eskola publikoetan doktrina erlijiosoen azalpena debekatzen du).

Momentu honetan, kreazionistek ematen duten argudio nagusia hau da, kreazionismoa, behar bada, ez da doktrina zientifiko bat izango, baina gaur egunean eboluzionismo zientifikoak duen oinarri zientifikoaren adina ba du. Eta Biologia Eboluzionistan agertzen diren desakordioak aipatzen dira zientifikotasun gabeziak bezala.

Gaur egunean, irakaskuntzan denbora berdina exigitzen duten legeak zenbait estatutan aprobata izan dira, eta beste batzutan aurten, segurasko, pasatuko dira.

### TALDE ZIENTIFIKOEN ERANTZUNA

Harrigarria da Estatu Batuetan dauden zientzilaren taldeak lege horien kontra

oraindik ez azaltzea. Antza denez, geologilari, biologilari eta antropologo gehienek ez dute diskutitu nahi beraien zientzien oinarriak planteamentu ez-zientifikoak dituzten kreazionistekin. Baina, orain legearen indarrez, behartuak dira doktrina kreazionistak irakaskuntzan azaltzen, eta hasiera bat bezala, ikuspuntu ez-zientifikoaren eskolan sarztearen kontrako informazio-sare bat muntatu da.

Honela, Iowa-n, "denbora berdinare" aldeko lege-projektu bat atzera joan da Iowa Academy of Science delako erakundearen eritzia onartuz. Baina Iowa salbuespen bat izan da. Unibertsitate askotan ikuspuntu kreazionistak ere azaltzen hasi dira, bertatik ateratzen diren lizentziatuek irakaskuntzan ari direnean, guraso eta ikasleen argudioak ikas ditzaten eta legeak bete ditzaten.

Problema hau gero eta grabeago bilakatu da Irakaskuntzaren Askatasunaren izenean ikasleek eta ikasleen gurasoek, legearekin, ahi dituzten astakeriak irakaskuntzan sartuko dituzte, eta nork daki?, behar bada 1925.ean gertatutako judizioa errepikatuko egingo da, zientifikotasuna publiko ez-jakitun baten eskuetan haizitzen delarik.

I. Zuazo

### GERTAERA-ren BIRJINA

Urtero, Irailaren 18an, Karrantza haraneko jai nagusia ospatzen dugu, hau da, delako "Gertaeraren Birjina"-ren jai (gaztelaniaz "La Virgen Del Suceso"), eta, niri biziki laketa zaidala geure historiaren burua murgiltzea, ez naiz geratuko honetaz dakidana azaldu gabe. Noski, aurrez aurretik esan behar ez duedala kasutxorik ere egiten jai honen sorrerari buruz entzuten diren gezurrezko historiari ("Gertaera" hori erlijioarekin lotuz). Nik, azalarnak oro aztertu ditut eta ba daukat egia osatzeko gairik. Gutxi gora behera, horrela datoke:

Orain direla urte asko, euskaldunen askatasunez beteriko odola kristauen gaiztakeriak oraindik pozoindu gabe zegoen garaian (hots, oraindik "hereseak" ginen garaian), orduan, "gertaera" guztiz arraro bat jazo zen Karrantzan, ikaragarria! Birjinitatea ezagutzen ez zen gizarte batetan, zeinetan florentziarrek, Veneciarrek eta Boccaccio-ren Decameron-eko gainerako osteek kopiaturiko zituzten akelarreak egiten baitziren, GIZARTE HORREXETAN, egun batez, birjina bat! agertu zen. Jakina, gure arbasoak (neureago Karrantzan jazo zen eta, denonak izango direla suposatzen dut baina) sor eta lor geratu ziren, zekusatena sinestu ezinik. Ez zekiten nola erreakzionatu "GERTAERA"-ren aurrean.

## KOMUNEAN IRAKURTZEKO GAIK

Egin zuten lehen-lehena, Urkiola-ko errainetan aurkitzen diren karpeetara joatea izan zen, hurbiltzen zen izurriaren kontrako arriskuaren aitzinean, ILARGI adiskidearengaino igon zen eguzkitar izpien eskutik. ETA, prestagai batzuek, zirimola modura itzuli zen bere ilunezko gelara espeziaren nahaski askatzailea prestatzeko. Karrantzar haiek, sorrage eta lorrage, itzuli egin ziren hain sotilki prestatutako katxondinarekin eta bi litro gutxienez injektatu zizkieten birjina hari.

HASIERAN, ez zuen erreakzionatzen. Oste-  
ra, poliki-poliki, hain keinuketa eta gogo lizun eta aldiztoak dibujatuz joan zitzaizkion, halakoa izan zen bere antibirjinitatezko oihua, non gure jentilgizonak ez ziren instan batez ere duda-mudatan egon. Momentu hartan haran edderra besarkatzen zuen ostadarraren bi muturrak batu zituen elkarbatze bat egin zuten. Eta, ostadarraren kolore guztiak, gardentasuna galdua, ezin agortuzko orgasmoaz nahastu ziren. Birjina desbirjinduak, gehiago eta gehiago nahi zuen. Asaezina zen. Eta hain izan zen handia obuluekin dantzatu esperma-kopurua, ezen anaitasunezko elkarbatze hartatik karrantzarño franko jaio baitzen. Horrexegatik, egun, Irailaren 18 guztietan, karrantzar guztiok gordetzen dugu sortuak izan ginen egunaren oroipena, eta "Gertaeraren Birjina" beneratzera joaten gara urtero.

Karlos Santisteban (Irailaren 18an)

# LIBURU

Euskeraren mundutxoan geratzen bagara, 1545. urtean jaiotzen naiz mundura ni. Mundutxo hau mundutzar bihurtzen badugu, askozak lehenago, baina utz ditzagun geure ez diren saltsak (gezak izaten baitira) eta barnera gaitzen geure otarrean. Geure otarre apalean.

Ettxepare delako batek erditzen nau urte horretan eta goratu egiten du zipriztintzen nauten hitzak. Orduan, hasten dut nik neure burruka existentziala giro aurkakor batetan: apaizok ez beste arduratzen dira nitaz. Eta nola esan beraiei tenore horretan haien laguntza laket ez zaidala? Superbizitzeko halako-holako joku batetan sartzen naiz beraz eta denbora berrien zain gelditzen naiz. Itxaropentsu. Ehundaka urte iheslari johan dira eta gauzok samartxo aldatu dira, hala ere, oraino ez nago pozik. Bide ezkutua bilatu nahi nituzkeenean, ez dut gidaririk aurkitzen ezta ere pozgarririk. Ni ez naiz aberri gabeko liburua. Liburu Euskaldun dut izena nik eta ueste dut Euskal Herrian nahiko garbi dagoela dagoeneko zer den aberria, zer den langileen aberria eta zer den internazionalismoa. Ez dut hasiko beraz polemikan, eztabaidaka. Bakar bakarrik euskal liburutasunaren trajikomendiaren berri eman gura nuke, ez dadin esan hemen teatorrik egiten ez denik. Gaurko liburu honek, laguntasuna, konpresioa, leialtasuna behar-behar ditu: ezin dezake aguantatu beti giro berdina, aldatu behar du eta adiskide minak edo ta ez hain minak baina bai adiskide dauzka beharrezko. Eta gizarte paternalista, moralista eta matxista hau onartzen ez badigu ere, liburuok, natalitate indizea goratu behar dela ueste dugu eta dibortzio eta antisorgailuen kontra pronuntziatzen gara. Liburu gehiago behar dugu geure baratzean euskal generoen eta letren fraternitatea iraunkorragotzeko eta euskal pentsaera guztiak euskeraz liburutatzeko. Hemendik ere esango dugu gogorregi gertatzen zaigula euskal liburu gixagaixooi "kultur hitz" gehiegiz geure orriak betetzea eta baita ere gure irakurleak aspertzen direla nobela bakoitzean hiztegi berezi bat ikasi behar dutenean. Aspektu honetan, MIKELDITARRAK delakoak nahiko buruko min ematen badigu, EKHAITZA-k gehiegizko iruditzen zaigu. Liburu gorrotatuak jai dauka Euskal Herrian eta edonon. Aristokrata izateko oraingoz ez dugu gogoa, apal izaten jarritu nahi dugu, baina izaten.

Liburuok ba daukagu ere sexualtasuna eta ez dugu nahi baztertirik izan. Ideia guztiakin erlacionaturik egon nahi dugu. Posizio guztietan nahi dugu larra jo. Euskera pornografikoa behar dugu geure hoztasuna bentutzeko eta euskal liburuaren esperma mundu orotan zehar sakabana dadin.

Karlos Santisteban

# LUMA "RENT

"Anaitasuna"tik bota egin ez banaute, egin beharko zuketean (hainbat hilabete da horrialde hauetan ezer idatzi ez dudala...). Izan ere, Euskararen leihaketen prestatzeak ez zidan beste edozertarako astirik uzten.

Baina udaldiaren parentegiaren ondoren hemen naukazue berriro lanean luma eskuan: "la rentrée", "la vuelta al cole" da. Testu liburuak erosi, instantzia berriak bota, lehenengo lagunak agurtzea, bileren egutegi berria finkatzea. Bai: bizitza ez da oporetako azken egindako maletarekin batera amaitu. Itzuli egin da bizitza, bere eskubideen bila; irauli eta inarrosi egiten gaitu. Ogibidera itzuli behar. Guk, lumadunok idazteko ofiziora.

- "Gero eta guttiago gustatzen zait hemen gertatzen ari dena" -ziostan orain dela gutti antzinako lagun batek liburutenda batetan - "Herri Batasunaren E. Ezkerrearen, EAJen gorabeheretan lehen izan nuen interesa arras galdua dut. Jadanik ez dut ezer ulertzen: bitan irakurri dut Urbiola eta Arbeloaren arteko gatazkarena eta oraindik ez dakit bietako zein den Parlamentu Foralaren burua".

- "Gaiztoa esan nahi duzu? Arbeloa, noski".

- "Honela dateke, zeuk badiozu. Dena dela, esan dizudanez ez dut gauza interes handirik".

- "Desmobilizatuta zaude. Tranpan erori egin zara. Atseginetan daudeke Madrilgo politikeroak".

"-Ez dut ukatuko, baina edozelan ere, ez dut herri honen problemak inoiz konponduko diren esperantzarik... Ba dakizu "Anaitasuna" hartzen dudala oraindik? Ez naiz hala ere lehen bezala zer arraio diozuen asmatzen hiztegia eta guzti" -jo

zuen aurrera nire begirada errukiorenean, Hego Ameriketako idazleen arasetan Grabiél Márquez edo Vargas Llosaren zerbaiten bila - "hauen obrak irakurtzea eman dit buruak orain".

- "Jadanik ez daude modan, ez da?".

- "Hainbat hobeto" - zikardukan - "begiratu liburu honi: ia seirehun horrialde du eta lauhun pza besterik ez du balio. Modan balego 750 pta balio luke guttienez" - eta oratu egin zion nire begietaraino eramanez - "ta zuk? Beti Euskaraz irakurtzen?".

- Bai.

- "Al dago gauza irakurgaririk orain Euskaraz?".

- "Ba, nik, egia esan, irakurgarria ez ezik, askoren iritzi hain irakurgarria ez dena, ere bai, irakurri ohi dut, Euskaraz izatekotan. Aurten Joxe Agustin Arrietaren "Abuztuaren 15 eko bazkalondoa" gustatu zait hobekien".

- "Ez naiz fidatzen... eta zuk, zergatik ez duzu zorerrek idatzen?".

- "Neuk? Harrigarria benetan: askok egiten dit galdera hau".

- "Eta zer diezu erantzuten?".

- "Zer esana ez dudalako ez dudala idatzen erantzun ohi diet... oraingoa berriz benetakoa arrazoia emango dizut, entzun gure baduzu".

- "Bota, gero".

- "Filologia Ingelesan duzu Litrentziatura eta Ingelesaren Irakasle Agregadoa zara oso oker ez banago. Baina esan: inoiz bururatu zaizu Ingelese z Nobelaren bat idaztea?".

- "Ingelese z nobela idaztea! Pentsatu ere ez.

- "Nahiz eta Ingelese z eta Literatura ingele-

# DUNEN REE"-A

az ondo jantzia izan. Beste horrenbeste gertatzen zait niri Euskararekin: Euskara ama-hizkuntzat ez dudala halebria".

"Eta zer? Ez Arestik ez Txillardegik ez Kintanak ez zuten Euskara ama-hizkuntzat ukan".

"Egia da. Ni ez naiz ordea ez Aresti ez Txillardegi ez Kintana. Neutaz ari naitzaizu. Ni eta nire lako euskaldunberri askok hamaika oztupo gainditu behar izan dugu Euskara ulergarri baten jabe bilakatu arte. Aski egin dugu Euskara ikastearekin ez duzu uste? Gero... idatzi egin behar zen eta, guretako batzu komiken bat ipuinen bat idazteraino heldu gara, beste askoren laguntzaz, noski. Guri nobela edo entsaiurik idaztea eskatzea lar da.

"Zer ba? Irudimen edo teknikaren ezak gaita zaudete?"

"Hizkuntza bera falta zaigu: gure barne-oihartzunena esan nahi dut. Hitzak hizkuntzan bizi dira. Hitzak jakin behar dira, ez den denak ordea, hitz bakoitzaren historia eta ingurua: hitz banaren pisua. Hitz bakoitzak entzule edo irakurle earengan sor ditzakeen sentimenduak eta oihartzunak jakin behar dira idaztean, idazlea eta irakurlea "onda" berberan egon daitezen. Saia zaitzazu "gauza bera" Ingelesean lehenengoz eta zure ama-hizkuntzaz gero esaten: Te quieto, He loves you. Gauza "bera" esan duzu baina ez dira berdin: "te quiere" txikitatik egoera ezpain urte leku askotan entzundako eta zerorrek erabilitako sintagma horrek zenbat bihotz-higidura dardar eta abar ez du sorrarazten zurengan! "He loves you" sintagmaren esannahia ezagutu egiten duzu: hauxe da guztia. Eta "mutatis mutandis" "te quiere" esatean esannahi logikoaz aparte badakizu zer nolako zirrada sor zenezakeen nitan, zu eta biok hizkuntza konkretu batek moldaturiko kultura, histo-

ria, sentikortasun baten semeak gara eta. Hor dago gakoa: gure gogoz bestera betiko euskaldunak eta gu ez gara "onda" berberan. Zer egingo diogu! Ez duzu inoiz jakingo, zehazki bederen, ser sentitzen duen euskaldunak "haur" "ama" "hamalau urte"... "putaseme" entzutean, hitzon esan-guren jakitun izatearen gorabehera.

- Ulertu duzu?

- Baietz uste dut... eta ez dago konponbiderik?

- Guri dagokigunez, berriz euskaldun mundura jaio izatea... ezina dena.

- "Eta idazteko grifarekin"

- "Gainera".

- "Orduan Euskal Literaturarik izango bada, euskaldunzaharrek, Euskalherriaren sentikortasunaren historia eta abarren jabeek, halebria, idatzi beharko lukete... Eta zuek?"

- "Geuk? Geuk irakurri egingo ditugu beren obrak"

- "Ondo mamitua duzu gaia" -esan zidan nire entzule-adiskideak astiro— "Ohartxo bat egingo dizut, ordea: idazle euskaldun horiek zureaz beste onda batetan daudelarik, ez dutela jakingo "haur" "ama" eta... (zer gehiago esan duzu?)

- "Hamalau urte", "putaseme"...

- "Hitz guzti horiek zuengan duketen kolorea edo oihartzuna. Gorren arteko elkarhizketa ote?" Zer erantzun diezadakezu?

- "Deabrua bera zarela. Dena dela hobe dukete azken hitz hori (putaseme) etxean laga eta gu ez iraindu, euskaldun berrion artean, apal eta suminkorrik, denetarik dago eta.

- "Como en botica".

Egun hauetan eta uda osoan zehar, jai patronalak ospatu dira, eta horietatik asko, bereziki, udaiarrei begira, bertoko santuak, sarritan, neguan baitu eguna.

Eta jaiekin batera, fenomeno bat sortu zaigu, hau da: jaietako askapenak, arlo berdinetan agertzen zaizkigunak.

Badakit, aurretik, nahiko diskutigarriak izango direla askapen hauek - batez ere bateonbati pertsonalki afektatzen bazaizkio - baina nire ikuspegitik ikusita hauek dira:

Sexu askapena, eta ez norberaren libidoa askatzen duen askapen garbia, baizik eta gizarte matxista baten zapalkuntzari jarraipena ematen diona. Zoritxarrez, Sanferminetan Emakumeen Batzordeak egin zuen salaketa (Aiermaniako bi neska bortxaturik izan zirela, Iruñako muralletan), ez da bakarria izan, eta hori isiltasunean eta salatu gabe gelditzen diren etatik aparte.

Eta hortik, eta eguneror sortzen diren beste egoeretatik, datorkigu gertaera hauek salatzen beharra. Baina, zoritxarrez, jaiak emakumeak guttienezko maila batetan mantentzeko giza-arsen joera eratzen duen aragoak baino gehiago ez dira.

Baina, jakina, jaiak ekartzen dituzten askapen guztiak ez dira kaltegarriak. Beste arlo batean, askapen politikoa daukagu. Edonork ikus dezake politika kaleratu, herritaru egin dela. Bateonbaten politikak ikusten, dantzatzen, jaten dugula esango luke, eta egia izan daiteke, gure herrietako jaietan egiten diren ekintza guztietan, amnistia-aren aldeko leta orobat, gure herriaren askatasunerako) esijentzien usaina dastatzen dugulako. Ormetako pintadak gehitu dira. Gure presoen argazkiekin egindako pegatinak jaietako pegatinak beste saltzen dira. Eta tanborradetan, Amnistia-aren Aldeko Gestorek edota Komite Antinuklearrek heuren agerpenak ateratzen dituzte.

Jaietan manifestaldiak, Gobernu Zibilaren baimeak eskatzeko beharra kenduta, ugartzen dira. Apurka, apurka errudun sentimendu hori galtzen ari da, baina ez du kentzen gogora daitezkeen, jaietan ere, presoak.

Jazoera hau ez da Euskal Herriarena bakarrik. Kultura guztietan ardurako politikak (eta erlijiozko mitoak edo beste sinet beharrak) herriaren manifestazio triste eta alaietan azaldu dira, eta plastikoki, Valencia-Falletan edo Sanferminetako Peñen pankartetan ikus daitekeen fenomeno bat da.

Esan liteke —gure herriaren historia gaurkotu bat egingo bagenu— jaietako ekintzek kultura herritar eta borrokalaria bat osatzen dutela, eta behetik hasitako talde borrokalaria, jaietan ere hazten direla.

Guztiok ezagutzen ditugun jai batzuetan gertatu den lez, herri erakundeen aurka joateak ondorio garrantzak ekar ditzake.

Hirugarren askapena, ohiturena dugu. Sako-nena, funtsaezkoena, eguneroko betebeharra, lan zapatzailea puskatzen, apurtzen, triskatzen duena.

Greziar klasiko baten hitzetan: "Gizona ohiturabere bat da" eta urrezko erregela hau ere, sistematik bere egin du.

Egoera txar baino txarragoetara geure burua makurtzen dugunean, "normalizatorako bidea" eratzeko harriak ipintzen ditugu. Aurreipinitako konbentzionalismoak aidera botatzean, sistema horren zutabe txiki bat hausten dugu.

Erloja azahzteko ahalbidea, ezagunak eta ezagunak agurtzeko aukera, treneko eguneroko aurpegi grisak begien aurretik kentzeko oportunitateak, eta liberazio gehiago, eskaintzen diozkiote jaiak langile automatizatuari.

Eta askapen hauetatik aparte, beste batzu aurki litezke gure herrietako jaietan, baina hori beste lanaren kontua da.

# LARRAMENDIREN HIZTEGIAZ ZENBAIT BITXIKERIA

Larramendiren Hiztegiak bi ediziotan ikusi du argia. Lehenengoz 1745. urtean, Donostian, zuela bi urte idatzita zegoela, eta bigarrenez 1853. urtean, baita ere Donostian, eta Pio de Zuaza editorearen bidez.

Tarte honetan euskararen gainean beste liburu batzu argitaratu ziren eta hauen berri Zuazak ematen digu. Beraz, Astarloak euskara ikasteko beharraz eta konklusio horretara heltzeko jarraitu zituen bidetaz dihardu.

Hiztegiaren izen osoa hauxe dugu DICCIONARIO TRILINGUE CASTELLANO; BASCUENCE Y LATIN, eta azalean Gipuzkoako Probintziari eskeinia dagoela azaltzen zaigu.

Hiztegia argitaratzeko baimena emanez zenbait jesuiten gutunen ondoren (lehenengoa 1743. urtetakoa), erregearen Cedula datorkigu, 1744.eko Apirilaren 16an emana, alegia, Felipe V.aren erreinuan.

Norbaitek Hiztegiaren salneurriari buruz zalantzaren bat bazeukan, hurrengo horrian argitzen zaio: horri bakoitzak 10 maraveditan baloratuta zegoelarik, eta Larramendik berrehun eta zazpi horri eman zituela kontutan harturik, bi mila eta hirurogei eta hamar maraveditan saltzeko behar zegoen. Hori behintzat, erregeak eman zion hamar urtetako epean.

Hitzaurre luze eta famatua hasi baino lehen, Larramendik, eta eskeintza modura, gaurregun barre egin erazten digu hitzekin, Hiztegiaren aurkezpena egiten saiatzen da:

“Beraz, beste hizkuntzarik inor ezin daiteke harrotu noblezia aboroz, funtsezko meritu gehiagoz ez eta hilezinezko izenaren eskubide aboroz. Bere jatorria dibinoa da, bere jaiotza infusu, Babeleko Dorrean ustekabea aingeruen hizkuntzaren Sortzaileak eratutako beste hizkuntzaren bezalaxe.

Bere aintzinasuna Dorre famatuarena, besterik ez da. Eta paradisuko hizkuntza izan ezbalitz, meritu faltaz ez zukeen eskubide hori galduko; hebreoak baino kalipu, bizkortasun, ugalkortasun edo hizkuntza kalifikatuenetariko beste zenbait balore guttiago ez baitu; eta denbora luzeago bizitza eta askatasuna gordetzeko glorian irabazten du”.

Beste zati batean ere, gaur oraindik euskarazaleen artean eztabaidatzen den (zorronez, gero eta guttiago) arazo batez mintzatzen da, zeraz, euskararen garbitasunaz:

“... eta euskarak, —berritasun eta aldaketari eskuraezina, eta inpresio bastartetatik libre— bere aintzinako garbitasuna eta edertasuna ikugabe gorde ditu; hori dela eta, Espainiako lehendabiziko biztanleak, Tarsis zein Tubal izan, gaur gipuzkoarrak enztungo balitu, hiztegi eta itzultzaierik gabe —bere hizkuntza ez bazuen ahaztu— ulertuko lituzke”.

Geroago, eta beste gogoramen batzuen artean, Hiztegia idaztera mugitu zuen zergatia zein zen azaltzen digu. Gaztelatik Bizkaia eta Gipuzkoara zetozen apaiz eta bizilagunentzat Hiztegiak zeukan balioa. Gizon hauek hizkuntza ezezaguna ikasteko gainditu behar zituzten oztopoez jabeturik, bere hiztegi landuaren eskeintza egiten du.

Eta hitzaurrearekin hasita, begietan jotzen digun lehen gauza, etimologiarena da. Guztiontzat ezagun dena, eta Villasantek HISTORIA DE LA LITERATURA VASCA liburuko 134-137. horrialdetan oharerazten duen bezala, Larramendik hitz berri asko sortu eta gaztelania edo latinetik datozen beste askorentzat, euskal etimologiak sortu zituen. Sorturako hitzen kasuan ez zuen argitzen noiz ziren berak asmatuak eta noiz herritik hartuak, baina berriak bereizteko bidea ematen digu: berak sortzen dituen hitzak hitz fakultatiboak direla. Bakarrik hiru kasutan argi esaten du hitzen jatorri

berria. Hona hemen hitzak:

“sutumpa” - “cañón de artillería” adierazteko.

“godaria” - “chocolate” adierazteko

“surrautsa” - “polvo de tabaco” adierazteko.

Beste kasu askotan ez da hitzaren jatorria azaltzen, eta berak eginiko zenbait asmakizun berri ontzat eta herritartzat ematen dizkigu. Hau da **biztanle** hitzaren egoera, gaurregun aski zabaldua dena.

Jakina da Larramendiren hitz batzuen azalpen etimologikoa. Ezagunenak hauek dira:





# GAIKAK EUSKARA GAIKAK EUSKARA GAIKAK EUSKARA

**alabantza** = *alaba - antza*

(amari alabaren antza daukala esaten zaionean alabanza bat egiten zaiolako)

**estandarte** = *estanda - arte*

(estandartea eramaten zuen gizonak leheritu arte alboan eroateko betebeharra baitzuen)

Baina badaude beste batzu hain entzunak ez direnak eta horregatik ez interes guttiagokoak:

Hona hemen **Jaincoa** hitza. **Jaungoicoa** hitzetik datorrena. (Bide batez esan behar dugu egoki ez zaizkiola iruditzen Jainkoa esateko beste hizkuntzetan erabiltzen diren hitzak, **Dios, Deus, Dieu, Tdio** edo **Theos**, izen propioak eta edonork eraman ditzakenak baitira).

Larramendik **Jauna jabe ona** - tik datorrela esaten digu; eta jabeak agintariak eta exijentzi handikoak izaten omen direlako ikusten du **ona** kalifikapenaren beharra, Jainkoak **jabe** hitzaren zentzu txarra ez du eta.

Eguzquia, **eguzquiña** berrirakurtzen eta

**egun egina**(edo **egun egilea**) ulertzen du.

**Illarguia** da **hile** bakoitzaren **argia**, eta urteko hamabi hilen jarraipena kontuan hartuta, hilargiaren aldaketak (hilbeherak eta hilgorak) ulertuko lirateke.

**Eguna** da **eguzki' lana**, eguzkiak berak egiten baitu. **Gaba** edo **gauba, gabetua** edo hutsa, argiaren falta.

**Guizona** hitzaren interpretazioa hiru modutara egin daiteke:

- 1- Gauzona = ona
- 2 - Gaitzona = gaiztoa = ona, kalitate baki gizonarengan- elkartzen direlako.
- 3 - Guisa ona = era + ona.

**Andrea** hitza **an - dere** hitzetatik dator. **Emacume** ere aztertzen du, **hume emale** etimologia egina, beste bat zilegitzat ematen: **eme hume** hitzetatik etor liteke, bere seksu berezia adieraziko balu.

Hitzaurrearen zati honekin amaitzeko, emakume ezkondua euskaraz **emaztea** dugu, edo, bere eritziz, **hazteco emana**, esatu berrian betetzen duen funtzioa adieraziz.

Zuka eta hikari buruzko burutapenek ere merezi dute gelduinea. Baina Larramendirekin topo egiten dugunean; XVIII.eko idazle baten aurrean gaudenik ezin dezakegu ahaztu, eta beraz, Aita Larramendi bere garaiko gizon bat zen.

Hau zuka eta hikaren erabilkerari aplikatzen dion erizpidea aztertu baino lehen esan behar den zehaztasun bat da.

Larramendiren hitzaurrean agertzen denari jarraituz, errespetua merezi duen pertsona batekin mintzatzen denean, erabili behar den tratamendua zera da, **berori** edo **berorrec**. Tratamendu berbera kidesasuna ematen digun lagunarekin erabiliko da. Baina lagun horrek ez badigu ematen eskeintzen diogun kidesasuna, **zu, zuc, zeu** edo **zeuc** hitzekin mintzatuko gara. Hirugarren kasua, arunt, zakarrekin, dihardugunean erabilitako zera da, **hi, hic eu, euc**.

Eta atal honetan emakume eta gizonen arteko tratamendu desberdina aipatzean (duk/dun) euskararen kortetsiaz ohartertzen digu.

Laura Mintegi

**BANCO DE BILBAO**  
**nire soldatak**  
**lan egiten du.**  
**Bitartean ni atsedenean.**



Orain hileroko soldatetik abantail haundiagoak lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu, alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten bidez eskuratu nahi duzula.

Honela, zure soldata egunero lanean arituko da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero, lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu. Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak, eskudirurik erabiltzeko beharrianik gabe. Bestalde zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen ordainketak, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua behar baldin baduzu nahiz gaez nahiz egunez, 24 Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.

Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak zure soldatetik.

Eskura



delakotik zure soldata

**BANCO DE BILBAO**

# MERCEDES SOSA: ABOTS BAT, OROIMEN BAT.

Oso erreza izan da Mercedesekin mintzatzen hastea. Berehala, sinpatia handiz, Donostiako Bitoria Eujanako kamerinoko eserlekuak eskeintzen dizkigu...


Ile luzea, indio arpegia, gestu lausotuak, 45 urtetako emakume arjentinar honi xarma, edertasun sakon bat dario. Hogeitamar urte kantagintzan, abots aberats bat., mila modulazioko abots ikaragarria..

Mercedes Sosa, Hego-ameriketako poeta eta abeslari famatuagoen bozgorailu dugu. Atauala Yupanki, H. Lima Quintana, H. Guarani, Violeta Parra.. Azken honen kantak ("Gracias a la vida" "La carta", "Los pueblos americanos"...). Mercedesen abotsaren bidez eza-gutu ditugu.

Argentina! Ezinezkoa da Mercedesentzat bere herria ez aipatzea. Arjentinar lagun batek kontatu zidanez, Lanusse diktadorearen aurrean kantatu beharrean arkitu zen batean, Mercedes, bizkarra emanaz diktadoreari "A mi pueblo!" esanaz, eskaini omen zituen bere kantak.

Anekdotak hontaz aparte, jakina da Mercedesek dituen arazoak bere aberrian lan egiteko...

Mercedes, jantziak aldatu, pontxo zabal batez istali eta eszenariora agertzeko prestatzen da. Bigarren eguna du Donostian, apur bat urduri dagoela aitortuz, eta besarkatzen nauen bitartean komentatzen dit...



Argazkiak: Eburne Lopez

Errepresioa sozietateko maila guztietara heldu da, eta momentu honetan desagertuen eta hildakoen kopurua gutxitzen ari da... gai izan daitekeen inor geratzen ez delako.

# GAIK ELKARRIKUSKA GAIK ELKARRIKUSKA GAI

"A, zer publiko hotza!... Zergatik da? Azken momentuan hasten da publikoa partizipatzen..."

"Arjentinako Tukuman herrian jaiak mintzen. Hamabost urtekin abeslari txapelketa bat irabazi nuen. Baina, badakizue zer gertatzen den kasu hauetan... familiak ez zuen gegi onez ikusten ni artista batetan bihurtzea. Reputazioa zela eta ez zela, ulertzen? Baina, ene bokazio eta gogoak handiegiak ziren... Laguntzak? Bai! Zenbait abeslari asko lagundu zitaditen: Kafrune, Horacio Guarani... Hala ere, emakume abeslari batek beti jarraitzen du ezpezio bat bezala kontsideratua izaten jarraitzen du beti. Ez dago diskriminazio nabarmenik kantagintza munduan, baina arazo bereziak ditugu emakume abeslariok. Esate baterako, abeslari batek, gizonezkoa baldin bada, emakume mordo bat du bere inguruan, bere bizimodua errazteko animatzen. Emakume abeslari baten bizimodua askoz zailagoa da.

"Ez nuen Violeta pertsonalki ezagutu... baina zera esan behar dizuet: Guk, arjentinatarrok, Violetaren lana baloratu eta maitatu egin genuela txiletarrak baino lehenago. Emakume guztiz aparta zen. Gorabehera handiko bizimodua izan zuen, destino trajiko baten biktima ets azkenean, dakizuenez bere burua hil

zuen. Era askotako kantak ditu, gehienak zoragarriak eta horregatik berari eskaini nion diska bat.

Oraingo honetan Victor Jararen kantak abestu nahi ditut! Begira, ni konturatzen naiz jende askoren oroimena oso ahula dela eta berehala ahazten zaiela zenbait gauza. Baina ni ez naiz horietako bat. Ni abots esta oroimen bat naiz eta Victor Jararen oroimenez nire abotsa erabiliko dut. Nik oroimen freskoa dut eta Victor Jararen erahilketa ez dut ahazten.

"Ni ez naiz errefuxiatu bat, ez dut ene burua herbeheratu, askok pentsatzen duten bezala. Arjentinan dut ene 21 urteko semea eta ene senarraren hilobi berria. Ni Arjentinara joan naiteke baina egin ezin dudana da han kantatzea. Arjentinan ez dituzte M. Sosaren kantak debekatzen, baizik eta Mercedes Sosa, pertsona, abeslari eskertiara izatea de-

abestu, iñoiz ez dit telebistak neri deitzen eta, kanporatu beharrean aurkitzen naiz lan egin nahi baldin badut.

Denok behar dugu gure lana ondo egin, bakoitzak bere arloan langile ona izan, eta nik ahalegin guztiak egiten ditut publikoari lan on bat eskaintzen. Honek ez du esan nahi, guretako bakoitzak bere ideologia ez duenik. Eta nik ideologia badut, ideologia ezkertiarra. Ez diot iñori ene ideiak inposatzen, ez propagandarik egiten, ez dut publikoa ene esanetara ekarri nahi, eta dakizuenez ene kantak era askotakoak dira. "Duerme duerne negro" subersiboa al da? Arjentinan lan ezin egite honek, izugarri sufriarazten nau. Edozein artistak ezin du bere herritik kanpo luzaro bizi, herriaren beharra du, herritik indarra eta kementa jasotzen baitu. Bai! Arjentinan lan egitea asko gustatuko litzaidake. Arjen-

**Mercedes, jantziak aldatu, pontxo zabal batez istali eta eszenariora agertze-ko prestatzen da. Bigarren eguna du Donostian, apur bat urduri dagoela aitortuz, eta besarkatzen nauen bitartean komentatzen dit...**

bekatzen da. Ene kantak ez bait dira subersiboak, ez ezin dituzte debekatu, lan on, serio bat egiten saiatzen naizelasko. Hegoameriketako folklorea ezin dute debekatu, baina Mercedes Sosa bai, margintzen naute, ezin dut iñon

tinan bizi baina ezin dut.

"Euskal publikoa oso musikazale, iaio eta exijentea da. Asko gustatzen zait, baina, txex! nolatan zarete hain hotzak? Nolatan?..."

Mariasun Landa

## KOMUNEAN IRAKURTZEKO GAIK

### BIDAIA BATEN KRONIKA

Ez naiz ni errelatoen oso zalea, baina nola jende guztiak presumitzen duen udatearen egun sargaritsuak zoriontasunaren ispilu bihurtzen eta bekaizkeria sortzen, horregatik, bekaizti amorratua naizelakoxe, nik neuk ere erabiliko ditut hitz paradisiarrik.

Aurten P.N.V.-k (oraindik siglen erotikotasuna antzematen ez dakitenez, hiru letra horiek "Pene Vaskoe" esan gura dutela esan behar) ez du erabili "Veranea en Euzkadi" slogan famatua, eta nik, beti kontrastearen kontra igeri egiten gustatzen zaidalarik, abadagune polita izango zela gure Euskal Herrian ingurutxo bat emateko pentsatu nuen. Zenbait lagun sufrituri neure intenzionaturiko asmoen berri eman nion eta, bestelako atzerakuntzarik gabe, prest geuzten geure lurtasuna ausnartzeko lur biziz. Horixe bai, ez genituen ahaztu kondioak eta ardo ameslaria: beharrezko dira oso libidoaren oihuak eta eztarriaren garraixiak ixilerazteko.

Ba genuen asmoa Humboldt-en edo Txahoren ibilbideak jarraitzeko, baina txiroegi gertatzen zitzaizkigu beraien jomugak geure gai gris ezin imajinatiboentzat: eta alboratu egin genituen posibilitate hau hasierahasieratik. Marko Polo-ren bidaiak nahiko sugestiboak ba ziren izan, hala ere, urruegi geneuzkan denboran eta baita ere urrutianago geure ahalmen psiko-moneterioetatik: ezinezko. Horixe bai, derrotismoaren lagun inolaz ere ez garelarik, proiektua betikor zetzan oraino, eta betikortasunari oratu genion koldartsu, fruitua ustel ez zedin.

Geure aitzineuskoen izpiritua nongura arnastu ahal izan dugu, eta horrelaxe beteango geratu da geure euskal arima. Iruñako murrailak Vasconen mila balentria kontatu

dizkigute; Santxo Haundiaren "haunditasunak" (erreduntziak ez dira kotizatzen Bolsan) Sabino Aranak eta beraren seki-toak arrazoi pixkat ba zutela frogatu digu; Barkoizen Etxahun-ek kantatu dizkigu zenbait berset, dolurusik; Benito Lertxundiaren abotsa entzun milatarrak eta gidari euskaldun abertzale bat eduki ditugu harpevide eta, agian, ia-ia, gogaide (diakroniaren orduak kontutan hartuz, jakina); Lapurdin euskal errefuxiatuak ikusi ditugu (terrorista aurpegiak eta guzti); nix ikasiago bilakatu naiz dialektologian, ezen neure inpultsu kristauak ezin baztertzuz, eliza eta frailetxe guztietan sartzen bainintzen eta elizako "kantak" hartzen. Euskerak salba nazala.

Beste anitz gauzatxoren artean, gogoangarriena beharbada dateke baina Leire-ko monasterioan pasaturiko une alaitsuak. Nirekin zegoen neure laguntza bat, Leire, eta berak ez zekien monasterioduna zenik: hu-

raxe aurkikuntza. Guk, txiroak!, ez genuen geure kleptomania jasan ahal izan, eta zenbait debozionario mangatu genituen monasterio delakoan frailesito berri bat ordenatzen zuten bitartean. Eta hara non kristorenen (maiuskularik gabe) itzala hurbiltzen zai-gun esaka: "oraindak ez dago oso argi euskeraz noiz erabili behar den "ko" atziakia eta noiz "En" baina erabaki arte, Leire, hau ez dun heure monasterioa, Leirekoa baizik". Kristoren itzala (maiuskulaz, baina puntu baten ondokoa izateagatik) joan egin zen eta gu harritu samar geratu ginen. Gero ponentzia bat aurkeztu genuen ere frailesitoen euskal gai transzedentalen bilkurañ, gaitzetsia gertatu zen baina. Azkenean galdu egin genuen gaztazka, eta Leire (nolabaitxo ezagun dezazuen esango dizuet leial, goiera normalekoa, ixili eta ile arraroduna dela: ez dakit nola azaldu ilearena, baina behin, bere portala zein zen ziur ez nekiela, ile ipitzudun neska batez itaundu nion atezain bati eta berehala eman zidan berri. Ba daukazue "delitoaren gorputzaren" imajina eskematiko bat, ezta?) desmonasteriodundua gertatu zen fite.

Baina desmoralizatu barik, "Leire, Leire, Leire, Leire, Leire, Leire, Leire..." delako abestia kantatu genuen eta bakea itzuli zen geure animoetara. Eta gainera, azkenean debozionariokin joan ginen eta orain euskal ama deboto batek dauka, nik erregalatua: "Juanita" deritzo. Baina honen fisioomia eta idiosinkrasia hurrengo batez agian kontatuko dut.

(Erredakzioa itxi baino lehen Leireren (edo Leireko, ez dakit) izpiritua heltzen zait esanez goraintziak eman ditzadala Soriako gartzelan dagoen Jonentzat eta baita ere euskal preso guztientzat. Hor geratzen da.

Karlos



# EUSK BURUZKO

"Nosotros, los vascos, verbigracia, vamos dejando nuestra antigua lengua y adoptando el castellano, lengua internacional".

Miguel de Unamuno.

El Idioma Nacional.


## EUSKARARI BURUZ ESAN DIRENAK

Maiz geratu naiz hausnartzen euskarari buruz esan diren guziak bilduez gero zer bilduma harrigarria osotuko litzatekeen. Mendeetan zehar, hemeretzigarren mendera arte bederen, hizkuntzalaritza hainbeste fantasiaren gordelekua izan baldin bada euskarari buruzko fantasiak are eta bitxiagoak eta aldrebesagoak izan dira. "Le basque a partagé avec le celtique le privilège de faire dire à son sujet d'incomparables extravagances" esaten zuen, ondo, frantziar idazle batek, Miguel de Unamunok bere "Critica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca" doktoradutzarako tesian, 1884an, zitatzen zuenez. Miguel de Unamunoren honekin batera euskararen ideologiei buruzko beste idazlan aipagarri bat Julio de Urquijo zenak 1918an eginiko "Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca" da, non oraindik bizirik zirauen apolo-gismoaren kritika egin bait zuen.

Duela bost bat urte, Jon Juaristi bilbotarrak euskararen ideologiaren historia soziala osotzen ihardun zuen (Euskararen Ideologian, Kriseilu Ed, 1976). Triologia gisa argitaratu behar zen idazlana (I-Etorkiak, II-Aranismoa eta III-Erlatibismo linguistikoa), baina zoritxarrez lehena bakarrik argitaratu zen, eta "zoritxarrez" diot metodo dogmatiko samarra erabili arren idazlana xit interesgarria zelako.

## ANTONIO TOVAR

Oraintsu, udara honetanxe argitaratu den "Mitología e ideología sobre la lengua vasca" delako liburu berria irakurtzen geratu naiz. Jon Juaristiren liburua aipatu ere egiten ez duen arren aztergai berbera du, hau da, euskal hizkuntzari buruz izan diren teoria eta ideien bila-kaera azaltzea. Egilea arras ezaguna eta ospetsua da hizkuntzalari zirkuluetan: Antonio Tovar. 1911n sortu zen Valladoliden eta irakaslea izan da Salamanca, Buenos Aires, Tucuman, Illinois, Tubingen eta beste unibertsitatetan.



# ARARI DEOLOGIAK

Liburu frango ditu argitaratuak: filologia klasi-koaz, linguistika indoeuropeoaz, Ameriketako hizkuntzetaz, eta euskarari buruz ere. Euskarari dagokionez, haren bibliografian aipagarriena "El euskera y sus parientes" (Ed Minotauro, Madrid, 1959) artikulua da, non badiren idazlan arraz interesgarri batzu. "Mitología e ideología de la Lengua vasca" honek, berriz, izenburuz bederen, gai deigarri bat igortzen duen eta liburu handiak hartzen diren bezala hartu nuen, eta iadanik esango dut, gero zergatia, irakurri eta liburu ahulak uzten diren bezala utzi nuela.

Euskarari buruzko ideologiaren bilakaera azaltzen da liburuan zehar. Lehendabizi, Erdi Haroko kronista eta Errenazimenduko humanista hispanikoak agertzen dira. Gero euskaldunak (Esteban de Garibay, Andres de Poca, Baltasar de Echave, Arnauld Oihenart, Joseph Moret, Gabriel de Henao). Ondoren, M. Larramendi (eta G. Mayans), P.P. Astarloa (eta J. Traggia), W. Humboldt (eta L. Hervás) eta Sabino Aranaen garaiko ideologoak aztertzen dira. Azkenez, desmitologizazioaren buruzko kapituluak Miguel de Unamunoren bidea erakusten.

## MIGUEL DE UNAMUNO

Hain zuzen ere, badirudi Miguel de Unamunoren ageri dela desmitologizazioaren eta euskararen azterketa zientifikoen aintzindaritzat, nabarmena delarik honen aldeko apologia. Honi buruz gauza frango idatzi da eta ez da gauza berririk, baina beste zita tipi bi imintzeko tentazioak irabazten nau. Alde batetik Miguel de Unamuno oso zientifikoa eta desmitifikatzailea zen honela mintzo zelarik:

"así como me parecería una verdadera impiedad que se pretendiera despenar a alguien que se esta muriendo, a la madre moribunda me parece tan impio inocularle drogas para alargarle una vida ficticia, porque drogas son los trabajos que hoy se realizan para hacer una lengua culta de una lengua que, en el sentido que se da ordinariamente a esta palabra, no puede llegar a serlo".

Eman dezagun honetaz azterketa zientifikoa egin duela eta praktiki konsekuentea proposatu. Halabaina, ez da hain zientifikoa, ez hain desmitifikatzaile gatzelerari buruz mintzo denean, alderantziz baizik. Esate baterako:

"el lenguaje, instrumento de la acción es-

peiritual, es la sangre del espíritu, y son de nuestra raza espiritual humana los que piensan y por tanto sienten y obran en español. Y la acción sin lenguaje no es más que gesto".

Baina ez da hau lekua M. Unamunoren tesiak aztertzeko, aipatu egin nahi dut bakarrik liburuan apologia egiten zaiola azterketa baino

gehiago, M. Unamuno aitabitxi izan ezin daitekeen gai batetan hain zuzen.

## AKATS BATZU

Liburuak, zalantzarik gabe, balio frango dituzte, liburu on samar bat da. Halere baditu zenbait akats nabarmen, eta hauxek ikusiko ditugu hemen, ez guziak, handienetarikoz batzuk baizik. Utzi ditzagun aparte akats tipiak, ohar-kabeen sorturikoak (Nació el creador del partido nacionalista vasco en Abadiano... esaten da 166 orrialdean) eta abiatu gaitzen aipatzen bila.

Lehendabizi, Antonio Tovar-ek euskararen ideologiak aztertzeko hautatzen dituen idazleak. Batzuetan luzaz mintzatzen da, bestetaz guti, eta aunitz ez ditu aipatu ere egiten. Julian de Churrua eta Elorza (Lauroguei idatzi zuena), Joannes Etcheberri Sarakoa, Agustin Chaho ez al ziren aipagarriak? Bada Arnauld Oihenart eta Wilhelm von Humboldt salbu, aipatzen diren ideologia guziak alde bitan batu ahal dira: batetik espainolak eta bestetik erdaraz egiten duten euskaldun apologistak. Euskarari buruz euskaraz egin denik —guti bada ere bada zerbait— ez da deus ere agertzen eta, gainera, Iparraldekoak baztertu egin dira (Agustin Chaho ez al zen beste guziak bezain sasiletratu, beste guziak bezain letratu?), eta beste nazioetako ikerlarien eritziak ere. Beraz, puntu honi dagokionez, partzial samarra ematen du liburuak.

Metodoaren aldetik ez du Jon Juaristirenak zuzen hestutasun metodologikoa, eta teoriaren azalpen eroso bat ematen da. Halabainan, iturrien zitak eman eta deus guti gehiago eskaintzen da, ideologiaren alorrean derrigorrezkoa delarik soziologia ere egitea, beharko lukeen azalpen sozial orokor bat falta zaio, beraz, idazlanari.

Iadanik heldu da amaitzeko tenorea artikulua honentzat, dudarik gabe solas frangotarako gaia ematen duela oraindik liburu honek, baina, orohar, ene eritzia emanen dut, hau da, zabalkunde handiko liburu bat izateko (Alianza Editorialeko sakel liburuei dagokienez) gaia lehendabizikotz irakurtzen duenarentzat astun samarra egiten dela eta, aldeberean, gaia zerbait ezagutzen duenarentzat ez duela berri handirik ekartzen.



# ESOTE NUM

**"Tau" delako sinboloa, tenplarioen sinkretismo okultistaren proklamazioa da. Ezaguna da gaur egunean Tenple ordearen arautegi ezkutua, zeinek artikulu batetan zera dio: "Baldin eta juduren edo sarrazeneren batek bere mahaira gonbidatzen bazaitu zenbatnahi jan ezazu eta, Jaungoikoari bere faboreengatik eskerrak eman berorrenak diren jana-riak atzera bota dituzten hipokritak mespreza itzazu ere".**

Egundaino ez da tenplarioen "Tau" a Kaba-larekin lotu gin, dudarik gabe honako na-hasmen honegatik: "Tau" delakoa alfabeto griegoaren hitz bat izanik, beti erlazionatu egin da juduen alfabeto sakratuaren "Tav" delako horretan, baizik eta "Teth" dela-koan (9,gn. numeroarekin erlazionaturik). "Teth" hitzak, horrez gainera, badauzka mistika hebraiarrean esannahiak franko: al-de batetik, hitz horrekin izendatzen da beren erlijioaren bederatzigarren hastapena, zein kokatzen da Adam.en (gizon primige-nioa) ernaltze organoetan. Beste aldetik ere, "Teth" hitzaren zentzuak zerikusirik badu Marte planetarekin, bere kilorea gor-ria zanik; baita Tarot naipeetan ere, bede-ratzigarren naipea, ermitaria, "Teth" hitzaz izendatu ohi da.

Tenplarioen sinbologia ikuspuntu hau era-biltzerakoan, oso argi ematen zaizkigu ho-nako ondorio hauek: monje gudariak zirela (hau da, ermitariak), kolore gorria erabili ohi zutela gurutzeetan, eta batez ere sar-bide errotuetan ernaltze organoetako musua parte bat zela, arautegi ezkutuan berriro ere irakurtzen dugun ez: "Errezeptoreak neofi-toari musu emango dio ahoan putzaldia sortzeko, elkarren segidan plexoan munkatuko, zeinek indarra menperatzen du, eta azkenez zakilan, Hastapen Sortzailearen imajea dena".

Baina esannahi guzti hauen gainean as-pektu askotan dakusagu nola tenplarioak magikoki zuzentzen diren 9,gn. numeroaz. Gogora dezagun Tenple orde bederatz ki-dez osatua zela hasiera batetan, eta bede-ratzi urtez egon zirela Lur Santuan Troyes'ko Erresuman onarpen ofiziala eskatu orduko. Beste aldetik ere, gurutzeak, sin-bolo magikotzat erabilia, bazuen 40 gradu-ko (40 x 9 x 360°) angulu bat, bitartean et elizak egiterakoan erabilia 36 graduko zen (4 x 9 = 36), goiztiar gotiko tenploetan ikus daiteken bezala.

## SANTIAGO,KO KATEDRALA ETA BEDERATZIA

Santiago'ko katedralaren atzekaldean sor-tzen den Azabacheria kalea Cervantes en-parantzaraino luzatu egiten da; kale hone-tan orain dela denpora gutxi ere saldu egi-

ten ziren azabatxe kutunak (amuletoak), oso errekerituak beren ustezko birtute ma-gikoengatik herri guztietatik etorritako erromesek. Kale honen ondoan zen Erdi Haroan juduen aljama eta horrelaxe denda asko judu hauen propietateak ziren, orain-dik ere inguruko kale eta karrika askoren izenetan daukagularik beren arrastoa: adi-bidez eta oso signifikatiboki Jerusalem kalea ondoan Troya delakoa dugu, hain zuzen ere aintzinako "Torah" izenaren aldaketa.

Ingurune honen berri emanez gero, kate-dralean bertan zer arrastorik aurki daiteke-nari jo egingo diogu. Lehengo eta behin esan beharra dago ezen gaur egunean iraun egiten duen eraikuntza hirugarrena dela katedralaren historia on zehar, besteen transformaketaren ondorioa izanik. Jato-rrizko kontzepzioan ere aurki zitekeen 9,gn. numeroaren konstante etengabea, eraikun-

tzaren modulo bezala; hasiera batean, ba-da, bederatz kapera absidal zeuzkan ka e-dralak, 63 zutabe (7 x 9), 9 zutoiarte eta 72 (8 x 9) jarleku horuan.

1.161,gn. urtean Mateo maisu legenda-riok hasi zuen "Portico de la gloria" fama-tuaren harriak lantzen; eta obra hau arretaz begiraturik edertasunak geure begirada itzal dezan utzi gabe, kontuan izango genuke nola judu tradizioak eraginda dagoen, Bi-bliaren sinbolo eta pertsonaiengatik baita kabalaren sistema numerologikoaren ager-pen sintomatikoengatik ere:

Atariaren argizulo erdian badago apostol bat, zein apostol ardatza dei dezakegu; al-de bietara bederatz zutabe bana daude eta hauen zokaloak bederatz arrano, lehoi eta agure. Ezkerreko aldera zortzi profeta eta eskuinera zortzi apostol, zeintzuk betetzen dira erdian den bederatzigarren zutabe huts batekin. Tinpanoan, bederatz figurak era-kusten dizkigute Pasioaren sinbolo iniziat-i-koak, eta arku ardatzan diren agure apoka-lyptikoen arteko bederatzik ere "matraz alki-miko" delako bana eramaten dute.

Baina azken bederatz agure hauek bete-zen dituzten lekuak ere lege kabalistikoak eraginda daude zeren:

- 1) Arkuan osatzen duten proportzioa 67,5 graduko da... eta 67,5 honetik atera ge-nezake:  $6 + 7 + 5 = 18$ , eta  $1 + 8 = 9$ .
- 2) Ezker aldetik zenbaturik, beren lekuak 3, 4, 8, 15, 16, 17, 18, 21 eta 24, garrenak dira, beren suma 126 izanik... eta  $1 + 2 + 6 = 9$ .
- 3) Eskuin aldetik zenbaturik leku hoiak, 1, 4, 7, 8, 9, 10, 17, 21 eta 22, garrenak lirateke, hau da 99, eta  $9 + 9 = 18$ , baita  $1 + 8 = 9$ .

## AZKEN ERREFLESIOA

Numero konbinaketa hau ez zaigu zen-tzugabekeri bat iruditzen, agudezia zorobat baino zenbait gehiago susmatzen dugu ba-tez ere aurreko kontsiderazio guztien argi-tasunaz. Jende askok, juduen magia nume-riologikoa ikusirik, ez daki ondorio ikusbera batzuk direla baino esaten, edo beharbada ulertezinak diren dogma batzuen aurrean gaudela baiztatzen. Egia esan, ustezko ma-



# ERISMOA (2): MEROTAN

gia hau askozaz harago doa, eta funtsean unibertsoaren oinarriko magnitudeen errepresentazio batetan datzate. Zentzu honetan, beraz, numeroak espazio-denporaren adierazpen bat besterik ez dira, eta, horrelaxe, azken finean esistitzen den guztiren adierazpena, nahiz materiaren nahiz gogo nagusien.

Numeroaren kontzeptzio kosmiko honen barnean, kabalak, sistema pitagorikoak bezala, hamar numero simpleetan oinarritzen du beste dena: hamar jario dibino, zeintzuk direla medio gizonak uker eta konpreni dezake izaera dibinoaren esentzia.

Idei unibertsal hau judu tradizioan esistitu izan bide da denporetan zehar, estalirik ala ez, eta hortik edan zuen kristau kultura okultistak, zeinek, potere erlijiosoek anatemizaturik, ezkurutik ihardun behar izan zuen, esoterismoaren adierazpen bat bilakatzen zuen ezaguera moeta bat praktikatuz, zeren eta ez ziren emandako sinesmenekin konformatzen, armonia kosmikoaren funtsezko arrazionak bilatzen ari ziren baizik.

Joanes Urkijo



Figura 1 - Números simbólicos.


1	2	3	4	5	6	7	8	9
10	20	30	40	50	60	70	80	90
100	200	300	400	500	600	700	800	900
1000	2000	3000	4000	5000	6000	7000	8000	9000

Figura 2 - Jeroglíficos del grado 33.

V	>	<	^	l	Δ	o	u
a	b	c	d	e	f	g	h
i	k	l	m	n	o	p	q
r	s	t	u	x	y	z	

# GURE HERRIAREN ABARROTSA EUSKARAZKO TELEBISTAREN HOTSA

JATORRIZKO EDO DOBLATU PRODUKZIOAK IKUSTEKO



- Garoa
- Kresala
- Aihen Ahula
- Justizia Txistulari
- Peru Abarka
- Vicki Vikingoa  
(doblaturik)
- El Hombre y la tierra  
(doblaturik)
- Le riche et le pauvre  
(doblaturik)
- Elsa Schelen

ZER GATIK EZ?



# LA AMABILIDAD



## Atsegin izatea, ate iriki bat da.

Lanari lotuta egon eta eragiteko. Zure naiak eta premiak jasoaz, lagundu nai zaitugu. Giza-legezko artu-emanak serbitzu ohea bait dakarte.

Ta ori da, ain zuzen, guregandik zuk nai duzuna. Gure bezeroak ala sinisten dutelako, gure jarri dute beren uste ona.




**Banco Guipuzcoano**

LA AMABILIDAD, UNA PUERTA ABIERTA

**LUZETARA**


1.- Ehun bigun bat. - 5.- Oinperatu. - 9.- Kantatzera ..... - 10.- El ..... Vencido, lehen euskal gramatika. - 11.- 1718.eko euskal errebolta. - 12.- Irango hizkuntza. - 13.- Txomin Agirre-ren nobela bat. - 15.- Usoen edo erleen soinuak. - 17.- Tolosa ondoko herri. - 19.- Tratulariaren lantegia. - 21.- Hodia, untzi txikia. - 23.- Porruak daukana. - 25.- Euskal esaldia ez da pasiboa, ..... baizik. - 26.- Ogia egiteko ekaia. - 27.- Hospe; gorazarre. - 28.- CH3 CO2 .....

**40.**



1.- Hizkuntza baten soinu bereizgarriak. - 2.- Hegoafrikar arrazakeria. - 3.- Aditz transitibo arruntenik bat. - 4.- Erreprimenda, erretolika. - 5.- Aurpegia jo, esku irekia. - 6.- Foru-baimena, batez ere Bizkaian (gatzelaniaz; 2 hitz). - 7.- Amildegi baten ertz; itsasalde. - 8.- Beti haurrekin dabiltzan pertsonak. - 14.- Laguntza edo laguntasuna eragiten duen erakundea. - 16.- Lehenago, kanpora; gaur, barrura: Euskal Herriko problema betikoa. - 17.- Berdintsu, pareko. - 18.- SWAPO-ren herria. - 19.- Herri honetan, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra gertatu zen, 1978.ean. - 20.- Ibarra, Arabako herri. - 22.- Katu handi edo Etiopiako hizkuntza. - 24.- "..... hegoa, gau epela..."

**39.**



# ADIZU!

**Hurrengo 14tik 16ra EUSKAL HERRI OSOAN zehar, euzkarazko prentsaren aldeko kuestazioa duzu. DENON LAGUNTZA BEHAR DA.**

- Kuestazio egunetan 3.000 pertsona beharko ditugu.
- Kuestazio aurreko egunetan 100.000 kartel zabaldu beharko dir.

**IZAN ZAITEZ GURETAKO BAT.**

Gurekin lan egin nahi baduzu, emazu izena telefono hauetan.

**BIZKAIA: 411 66 20 - 411 66 30**

**ARABA: 231 11 37**

**GIPUZKOA: 427 77 86**

**NAFARROA: 21 36 96**



**ANAITASUNA, ARGIA, HERRIA, JAKIN.**

1970/1979 **Una  
década más  
de entrega  
a Vizcaya.**



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**



**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA

# Estamos a su servicio para que Gane Más.



## Abono de sueldos

El Servicio de Abono de Sueldos consiste en cobrar su sueldo a través de la Caja, evitando riesgos, disponiendo de la máxima comodidad en los cobros y pagos que tenga que

efectuar, y disfrutando de muchas ventajas.

## Soldaten Abonua

Soldaten Abonu-Zerbitzua honetan datza, alegia zeure soldata Kutzaren bidez kobratzen duzula, honela arriskuak baztertzin dituzularik, egin behar diruzun kobrantza eta ordainketetan erosotasunik haundiena duzularik, eta ondoko abantaila hauetatuz baliatzen zarelarik.

## 111 Oficinas en Guipúzcoa

Primera ventaja: la comodidad que le supone poder resolver sus gestiones en cualquiera de nuestras sucursales.

## 111 Bulego Gipuzkoan

Gure sukurtsaletatik edozeinetan zure gestioak erabaki ahal izateak dakarkizun erosotasuna.

## La red de Cajeros

### Automáticos más amplia de la provincia

Para realizar ingresos, retirar fondos, pedir talonario, solicitar

extracto de cuenta, etc... tanto de día como de noche.

## Probintziako Kutxazain

### Automatikoen sarerik hedatuena

Egunez nahiz gauetz, sarrerak egin, fondoak atera, taloi-liburuskak eskatu, kontu-laburpena eskatu eta. egiteko.

## Puntual información de sus operaciones

Zure eragiketaren orduko informazioa

## Rapidez y seguridad

### Bizkortasuna eta segurtasuna

## Domiciliación de Ingresos y Pagos

En la Cuenta de Abono de Sueldos podrá domiciliar todos sus cobros: haberes, ingresos por transferencia, prestaciones del INSS e INSALUD tales como pensiones, accidentes, desempleo, etc... y efectuar cómodamente todos sus pagos: recibos de luz, agua, teléfono, gas, colegios, sociedades, contribuciones, impuestos, etcétera.

## Sarrera eta Ordainketen helbideratzea

Soldaten Abonu-kontuan helbidera ditzakezu zeure kobrantza guztiak, (hartzekoak, transferentzia bidezko sarrerak, INSS eta INSALUDen laguntzak, adibidez pentsioak, istripuak, desplegua, etab.; halaber, erosotasun guztiz egin ditzakezu zeure ordainketa guztiak, (argi, ur, telefono, gas, ikastetxe, sozietate, kontribuzio, zerga, etabarran ordain-agiriak).

## Tarjeta 6.000

Con la Tarjeta 6.000 podrá obtener dinero en efectivo en las 8.000 oficinas de las Cajas de Ahorros Confederadas y pagar sus compras en más de 300.000 establecimientos de todo tipo.

## 6.000 Txartela

6.000 Txartelaren bidez Aurrezki Kutxa Konfederatuetako 8.000 bulegotan dirua atera eta zeure erosketak 300.000 establezimendu baino gehiagotan ordaintzeko modua daukazu.



## Auto 6.000

Para adquirir carburante y pagar otras prestaciones para su vehículo en cualquier estación de servicio, talleres, garajes, etc..

## 6.000 Autoa

6.000 Autoa taloien bidez, zeure ibilgailuarentzat erregaia eta beste zerbitzuak lor ditzakezu.

## Credito Automático

Por el hecho de cobrar su sueldo a través de la Caja podrá obtener en el acto un CREDITO AUTOMÁTICO y acceder a cualquiera de los restantes créditos de la Caja.

## Kreditu Automatikoa

Zeure soldata Kutzaren bidez kobratzeagatik, horregatik bakarrik KREDITU AUTOMATIKO bat berehala eta Kutzaren beste kreditu edozein lor ditzakezu.



Juvenil, las Colonias Infantiles de Goyeneche y Ribavellosa, la Oficina de Jóvenes, Becas de estudio y la Ciudad Laboral Don Bosco, el Centro Cultural de Nazaret, los E.U.T.G., etc. donde se imparten estudios para su formación profesional o universitaria.

## Kultur eta Gizarte-Ekintzak

Institutu onkologikoa, Buruelbarrientzako ASPACEko diagnostiko eta ikerketa-zerbitzua, Literatur Sariketarak sail berezitan euskaraz eta gaztelaniaz, Pintura eta eskultura-lehiaketak, hitzaldien, emankizunen ikastaroak, etab.

Eta zure seme-alabentzat, Gaztetxoan Elkarte, Goienerxe eta Ribavellosa-ko Haur-udalekuak, Gazteen Elkarte, ikasketak eta heziketa profesional edo unibertsitate-mailako ikasketak egiten diren "Don Bosco" Hiri Laborala, Nazaret Zentru Kulturala, G.U.T.I. etab. dauzkagu.



## AHORROCAP80

### Ahorrocap

Mensualmente, sorteos exclusivos para quienes utilizan el Servicio de Abono de Sueldos.

### Ahorrocap

Soldaten Abonu-Zerbitzua darabiltenentzat bakarrik egiten diren hileroko zozketak.

### Obras Sociales y culturales

Instituto Oncológico, ASPACE —Servicio de diagnóstico e investigación de la parálisis cerebral—, Premios literarios para especialidades en euskera y castellano, Certámenes de pintura y escultura, ciclos de conferencias, proyecciones, etc. Y para los jóvenes, nuestro Club



## SERVICIO DE ABONO DE SUELDOS



**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA**  
**GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA**